1975 — AZAROAK, 1 XXXV - garren urtea 660 - Zenbakia

zeruko
ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 SAN SEBASTIAN - TEL. 419588 - PREZIOA: 10 PEZETA

# Durangon liburu eta disko azoka



# Xalbador, Matxain eta Aierbe Irabazle

### BERTSO PAPER SARIA

Urrezko eztaiak ospatzen ditu aurten Gipuzkoako Pelota Elkarteak. Hori dela eta, pelotari buruzko bertso sariketa bat ipini zuen.

Bertso asko jarri da. Bertso-jartzaile guztiek hartu dute parte sariketa honetan.

Urriaren 24ean erabaki zen zein ziren irabazle.

Hiru sari dira: lehenengoarentzat 15.000 pezta, bigarrenarentzat 10.000 eta hirugarrenarentzat 5.000.

Lehen saria Jokalari izenordez agertu ziren Fernando Aire "Xalbador" bertsolariaren bertso-sailak merezi izan du. Zorionak Xalbador!

Bigarrena Aieteko Matxain bertso--jartzaileak irabazi du. Zorionak!

Hirugarrena, berriz, Aierbek. Zorionak!

Epai-mahaiko: Juan Mari Lekuona, Joxe Mari Iriondo, Bordari, A. Zabala, Jexux Mari Etxezarreta eta Joxe Mari Aranalde. Horrenbeste "Mari"k ondo erabakiko ahal zuten behinik behin.

Dena den liburu batean ikusi ahal izango ditu bertso hauek denak nahi duen guztiak. Gipuzkoako Pelota Elkarteak txapelketa honetako bertsoez moldaturiko liburu bat argitaratu nahi izan du. Donostiako Aurrezki Kutxak argitaratuko du.

Abenduaren 14ean Donostian egingo den bertsolari jaialdian zabalduko da liburu hau.

### ELIZONDON BERTSOLARIAK

Ikaragarrizko feria izan ohi da Elizondon urtero. Urrian ospatu ohi da beti. Urriaren 24ean izan da aurten.

Jende asko bildu ohi da bazter guztietatik, Batez ere ingurumari haietatik. Baztan, Nafarroa-beheretik eta Lapurditik ere bai. Euskaldun eta ferizale asko.

Eta feria hori dela eta bertso saio bat antolatu ohi du urtero Mariano Izetak trinketean.

Bertsolari hauek izan dira aurten: Zalbador, Mattin, Lazkao-Txiki eta Azpillaga. Bertso saioari hasera Elizondon bizi den Klemente Ezkurdiak eman zion.

### LAZKAO-TXIKIri OMENALDIA

Datorren urtean egingo zaio Lazkao-Txikiri omenaldia. Halere, zenbait jende dagoenekoz hasi da Lazkao-Txikiz oroitzen. Oraindik orain Rufino Iraolaren bertso batzuk agertu genituen.

Oraingoan Enkartaziotan bizi den Alix Trueba euskaldun berriarenak datozkigu. Ez muzin egin Joxemiel, euskaldun berri honen bertsoei, bihotzez eskainiak dizkizu eta.

I

Lazko-Txiki zure laguntza
disfrutatu dut askotan,
esan behar dut izan zaidala
arras alaia benetan.
Euskaldun-berri honek hemendik
Enkartazionetetikan
Bihotz-bihotzez agurtzen zaitu
"nahiz eta bizkaitarra izan".

II

Gure etxean, Bizkai ertzean
Joxe Migel egon zara.
Zure bertsotaz betegin duzu
baratzatik ganbarara.
Datorrenian, garai hobean
izpiak irtengo dira;
ordu horretan esango dizut
zatozkit gure plazara.

III

Pausuko saio ugari hura
oraindino dut gogoan;
euskaldun denok anaiak gara
Ipar zein Hegoaldean;
anitz ardotxu edan genuen
denok umore onean,
pagatu berriz, ezin genuen
beti pagatua baitzan.

IV

Lazkao-Txiki zurekin beti
dabiltza gizatasuna;
euskaldunentzat eredu zara
esan behar dizudana.
Itxuraz zara txori alaia
barruan, berriz, gizona.
Jarrai Lazkao beti bertsotan
hori da eskatzen dudana!

Karrantzan bizi den euskaldun berri honen bertsoek balio eta meritu haundia dute. Karrantzan ere euskaldun izan nahi dutela adierazten bait dute.

Aurrera ALIX!

MUTIOZABAL

ETXEKO - ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezu
ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilli beti
Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboi bakarra
Etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena.

¡JABON LAGARTO!

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopeitia

Getaria, 10 - Urrutizkiña: 41 77 51 - Etxekoa: 42 27 00 - DONOSTIA

# Vgarren ZEPAI SARIAN

## Jabier Zeberio Txapeldun

Gure lantxo onek argia ikusterako, gure adiskide leial Mutiozabalek, Sari oni buruz, berriak emanak izango ditu, baiñan, guk ere zertxobait idatziko genduela itza eman genduen eta orretara gatoz.

Ogei bertsolari bigarren maillakoak —guk ez diegu bertsolari gazte deitzen, izan ere asko Jesukristoren urtetan paseak daude eta besteak oso gutxi falta dute urte aietara irixteko— itza emanak ziren Sari au jokatzeko. Batek, Argiñarenak, nafarrak, ez zuen etortzerik izan —gaixotu egin zelako— eta emeretzik jokatu zuten. Bada bertsolari sailla!

Leenengo eliminatoria, goiz eta arratsalde, iraillaren 21ean jokatu zen eta Sariaren Azkena urriaren 18an, gaueko zortzietan, Idiazabalgo Guraso Elkartearen Saloian. Leenengo igandean, delako Azken ori jokatzeko, amar bertsolari auek aukeratuak izan ziren. Bizkaitik, Enbeita eta Mañukorta. Gipuzkoatik, Agirre (au Brinkolakoa ez Azpeitikoa), Attola, Zeberio, Narbaiza, Murua, Zabala eta Etxaluze. Bidasoz, arunztik, Mendibuburu, berriz.

### SARIKETA BIKAIÑA

Leenengo aldiz Zepai Saria jokatu zenean, oso gustora eta pozik etxera giñen. Baiñan —egia aitortu beharra dago— santa sekula ez genuen pentsatuko gaur artu duen indarrik artuko zuenik. Ikusi besterik ez dago zenbat bertsolari Sarian jokatzera inguratu diren. Gure adiskide jator Jexus Azurmendiren lan eta buruausteak ez dira alferrikakoak izan. Zorionak, Jexus. Onek, Jexusek, bertsolaritza zer dan argi eta garbi daki eta, gaiñera, laguntzaille onak billatzen jakin du. Gaiemaille bera izan zen. Baita gai asmatzaille ere. Nola lan bat ala bestea, oso egoki egin zituen eta Jexus tartean den bitartean, Zepai Saria galtzea zailla ikusten dugu.

### EPAI MAIKOAK

Aita Zavala, Bordari, Luzio Gabiria eta Inozentzio Oleak osatu zuten Gipuzkoa aldetik. Beste bosgarren bat ere bazuten. Bizkaiko Muniategi ote zen esan ziguten. Ziur esateko ez dakigu. Ala bazen ondo dago eta ez bazen, izan zenak barka diezagula. Gure ustez —eta ez Zeberio gure erritarrak irabazi zuelako— lan ikusgarria egin zuten. Bi ordu eta erdi luzean an egon ziren bertsoak entzuten eta denbora ontan guzian bertsoaren arrastoak eramaten oso zail da. Bertsolari denak edo geienak, oso bertso onak abestu zituzten eta ainbat bertsotatik bereizketa egitea, oso lan aspergarria da. Zorionak, ba, eta aurrera.

### ZEBERIO TXAPELDUN

Jabier Zeberio gure erritarrak, irabaztea ez giñen batere arritu. Bere lana, saio guztian, neurri berdintsukoa izan zen. Neurriz juxtu, puntuz berdin eta gaiari ederki eltzen jakin zuen. An ez zen bertso anka mee eta plakorik. Denak biribillak eta ederki osatuak. Leen ere, Zepai Sarian, urtero goi maillan ibili oi da. Zepai Sarian bakarrik ez, ortxen aurtengo urtean, Orixe Saria irabazi zuen eta ez pentsa berarekin abestu zutenak lo egon zirenik. Aitortu bearra dago —eta aitortzen ez duenak beretzako kalte— burutik oiñetaraiño Zeberio bertsolari da. Orain, Zepai Saria irabaztearekin, leenengo maillara igo da eta mailla ontan parregarri ibiliko denik ez dugu uste. Jaso gure eskuzartadarik beroenak, lagun Jabier, eta lan zaillenak egiñak dituan ezkero, bertsolaritzari ez iezaiok utzi.

### BESTE BERTSOLARIAK

Leen esan dugun bezala, guztiak, bataz beste, ondo jardun ziren. Bertso ariñik irten zela? Bai. Nun ez? Idiazabalen entzun genituen bertsoak baiño «plakoagoak» zenbait Txapelketatan entzun izan ditugu. Eta oraindik entzungo ez dugunik ere, ez genuke esango. Murua —oraindik gaztetxoa— bertsolari eta plaza gizona dator. Alkarri azken agurra egitean, ala esan genion: «Zenbat urte?». Emeretzi, erantzuna. «Beste amar urte pasatzerako, Zepai Sariko txapela jantziko duk». Ala izan dadilla. Eta bukatzeko, beste bertsolariei auxe diegu: «Aurrera, mutillok! Zuengan baduzue bertsolariak bear duen «zer» ori eta ez etsi. Denori besarkada bat. Zuen lagun,

«IBAI-ERTZ»

FAGOR

edaria epela dagola? FAGOR'ek oztuko du bereala

FAGOR

NORK KUKURRUKU¡¡¡¿¿¿

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian

# NUKLEAR INDARRA

— 1 —

Deba aldetik dator berria
eta ez gaitu gu poztu.
Etorkizuna behar diote
herri maite honi moztu.
Berriro bero ekinak dira
nahiz lehen zerbait hoztu
Azkenik etxe nuklear hori
egiten dela apostu.

— 2 —

Guri etzaigu sekula falta
malkorik edo negarrik
ez daukaguta defenditzeko
legerik eta indarrik
Uretan ezin arrairik sortu
eta lurrean belarrik
kalte handiak dakazkiela
ez dago esan beharrik.

— 3 —

Aspaldi hontan ez nun entzungo
garratzago dan egirik,
Bistan dagoen arazo bati
inork ez itxi begirik,
guretzat ezda ezer izango
holako ondamendirik
gaur lerden dagon amaika gauzak
ez du izango bizirik.

— 4 —

Zer ondorio ekar lezazken
kontuak ongi atera
On usteko ta iritxi leike
negargarri izatera.
Gero alferrik joango gera
kendutzeko esatera
eman dezagun ezezkoa gaur
debatarrekin batera.

— 5 —

Nuklear indar beldurgarria
ezin esan halakoa
oraindik ere gogoan dugu
Hirosima aldekoa
Amerikarrak bonba batekin
gaisoei egindakoa
berreun eta hiruroi milla
bizi-lagun hildakoa.

— 6 —

Hoinbeste mila hil ziradenak
beste hainbeste eritu
Ikara hori oraindik ere
askok ez dute gainditu.
Neurri berdinen ez bada ere
honek arriskuak ditu.
Ta ez gaitezke hori jakinda
ajola gabe gelditu.

— 7 —

Batzuek dabiltz etekin denak
bil nahiez beren pertzean
Ta etxe hori finka nahita
itxasoaren ertzean.
Herri batzuek honda lezazke
Hirosimaren antzean
Deskuido batez etxe zar hori
erbituta lertzean.

— 8 —

Beranduegi izan baino len
dezagun irrintzi
Gu engainatzen ibili arren
ez dakit zenbat iritzi.
Proiekto horri behar diogu
betiko ateak itxi.
Gure baimenik ez dezatela
sekula ere iritxi.

— 9 —

Kalte guziak ez ditut aita
baina behar dut bukatu
Gehiegi esate arren gero
et diraten debekatu.
Nork bere hura defenditzea
nahiz ez izan pekatu.
Zuria beltza dala diote
eta guk ezin ukatu.

RUFINO IRAOLA

# AZOKA

Azoka egiteko ohitura zaharra da. Egiten ziren gauzak edo hazten ziren abereak saltzeko, erosteko edo trukatzeko beharrezkoa zen azoka. Zenbait azoka egunero egin ohi da. Beste zenbait astero.

Zenbait herritan hilero egin ohi da. Urtean behin bakarrik egin ohi diren azoka famatuak ere badira, han eta hemen.

Ardiak, behiak, behorrak, oiloak, arrautzak, babarrunak, barazkiak eta abar eraman ohi dira nekazarien azokara. Era guztietako makinaria industri azokatara.

Durangoko azoka honetara, ordea, liburuak, diskoak eta astekariak eraman ohi dira. X. Liburu eta Disko Azoka dugu aurtengo hau. Euskal Herrian egin ohi den liburu eta disko azokarik famatuena eta ezagunena dugu. Hamar urte errezkadan egin den azoka dugu. Euskaldunen artean arrakasta sortu du.

Sal-erosketarako bakarrik ez da azoka. Beste alderdirik ere badu, noski. Giza harreman ugari eta aberatseko leku bilakatu da azoka. Azoka bidean zabaldu eta bildu ohi da albiste eta berri asko. Ahotik ahora, giza-harreman beroaren gazi-gezaz, zabaldu eta bildu ohi dira albisteak.

Astekari eta egunkaririk, irrati eta telebistarik ez zen garaian azokara joan behar zuen, zerbait jakin nahi zuenak. Egiak eta gezurrak, zurrumurruak eta gertatuak, berri alaiak eta tristeak esan eta jakin ohi dira.

Saldu eta erosi, azokan salgai direnekin etxean duena neurtu, eroslearen begiak zerk dituen betetzen ikusi, salmentak gora ala behera egiten duen jakin, besteek nondik nora jotzen duten zaindu eta abar egin ohi da azokan.

Elkarren arteko lehia eta besteak zer pentsatzen eta zer egiten duenaren jakinmina sortzen da azokan. Zeinek gauza gehiago eta hobeak ekarri saiatzen de bakoitza. Gauza xixtrin eta arloterik ez da azokan erakutsi nahi izaten. Elkarren arteko lehia ere sortzen du, beraz, azokak.

Beste inork ez duen zerbait berririk eskaini nahi izaten da, gainera. Nor gehiago honek ezineramana ere sortu ohi du. Honelakoxeak gara gizonok. Baina lehia honek aurrerapena dakar. Zailtasunak gaindituz ugaldu eta hobetu ohi dira gauzak. Bestela, loak hartzen gaitu. Lehenean geratzen gara. Atzera egiten ez badugu, gaitzerdi.

Durangoko Liburu eta Disko Azoka ez da liburuak eta diskoak saltzeko eta erosteko bakarrik. Euskaldunon biltoki da. Euskal kulturgintzan ari diren guztiak han ikusi ohi dute elkar.

Lagunekin eta etsaiekin topo egin ohi da. Lagunekin haserratu eta etsaiekin adiskidetzea ere gerta daiteke. Elkarren lana neurtu, batak bestearekin hitzegin, elkarren asmoen berri jakin, batzuk eta besteak agurtu, denetarik egin ohi da Durangoko azoka honetan.

Urtean zehar egin den lanaren fruitua han agertuko da. Begiz ikusiko dugu zer egin den. Idazle eta langile berriak ezagutzeko aukera izango dugu.

Euskal kulturgintzan diharduen guztiarentzat da interesgarria Durangoko Liburu eta Disko Azoka. Azoka honen fruituak nonahi eta noiznahi nabarmentzen dira.

Denok Durangora. Lagun bila, poz bila, bero bila, iritzi bila, berri bila, buruzpide bila, elkarrekin batera gero eta bortitzago eta biziago aurrera jo dezagun.

ARGIA

JABEA:
Nafarroa, Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoek.
Burlada, Kale Naguela, 50-1
Donostia, Okendo, 22
Telf. 41-95-88

Ondezkaria: Kaletano Ezeiza Iturriza

HARPIDE SARIA:

| | |
|---|---|
| Barruan | 400 pezeta |
| Korreo batasunetako herrietan | 620 pezeta |
| Atzerrietako beste herrietan | 460 pezeta |
| Airez | Aldez aurretik galdetu |
| Salmenta (ale bakoitza) | 10 pezeta |

Moldiztegia eta Idazkola:
«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1. IRUIÑEA
NA 80-1962

# EGUN EGUNGOA

## BAITA HORI ERE

Leiretik nentorrela, arratseko bezperak entzunda, Iruine ondoko taberna batetan gelditu naiz. Giputz asko bertan, mokokada jaten, garagardoa iresten eta... Santander aldeko doinu bat kantatzen ari.

Oi futbol-zaleok! Hizkuntza galdu ondoren, gure kantu ederrak ere bihotzean ihartu ote zaizkizue?

DANIEL IBARGOITI

# IRLANDARI EZ-IKUSIA

Orain dela mende erditsu bat, garai hartako izkribuak irakurriaz egizta daitekeenez, Irlanda aldera begiratzen zuen euskaldun askok; baita haruntz joaten are, argi bila. Gaur, berriz, inor ere ez.

Hots, Irlandako gertakariak, belaun berriari atsegin ez bazaizkio ere, hango egia aurrez aurre begiratzeko eta bilatzeko bertutea behar genuke izan.

Gauza jakina denez, gehiago ikasi ohi du Jakintzak «bitxikeriak» ulertu eta azaldu nahiz, lerro-lerro burutzen diren gertakari arruntak aztertuz baino. Etsenplu ezagun pare bat ematekotan: Uranoren orbitaren «bitzikeriak» hausnartuz aurkitu zen Neptuno; eta Merkurioren perihelioaren «bitxikeriek» funtsatu zuten Einstein-en teoria.

Irlandako «bitxikeriak» ere, horretara, argi-iturri gerta dakizkiguke; eta hango gertakariak behar genituzke hain zuzen ere sakonki aztertu.

---

1916an afusilaturik hil ziren abertzaleen helburu bikoitza hauxe zan: «Irlanda askatua bai, baina gaelikoa; Irlanda gaelikoa bai, baina askatua». «Askatua» esanez, jakina, «batua» ere adierazi nahi zuten; Ulster-ko bi herenen bereztea eta galtzea geroago mamitu baitzen, britaindar interes nagusien salbakuntza nolapait bederen segurtatzekotan.

Irlanda batua eta Irlanda gaelikoa, beraz.

Baita, 1916ko altxamenduan Connolly-rekin parte hartu zuten sozialista abertzaleen aldetik, Irlanda sozialista ere.

Hots, jakina denez, Irlanda ez da batua, ez gaielikoa, eta ez sozialista.

---

Iparraldean, industria zuen eskualdean hain zuzen, «protestanteak» nagusitu ziren Londresen laguntzarekin (irakur: britaindar burgesia); eta inperio barruan gelditzea lortu zuten. 1922 az geroztik erdibiketa hori IRAk inoiz onartu ez badu ere, Dublingo gobernuak potto egina du; eta ontzat eman zuen jatorrizko helburuaren «batua» hura, alde batera uztea. Ekonomiaren aldetik, gainera, diruketaren sailean, % 70 gurutzatzen du gaurko Irlandak Bretaña Nagusiko gobernuarekin eta burgesiarekin; eta internazio-jokoan zeharo agertzen da Londresen adar «katoliko» baten gisara.

Pearse, 1916ko altxamenduaren buruzagia, gaelikoaren bultzatzaile porrokatua izan bazen ere (Dublingo lizeo batzutan gaelikoa lehenengo aldiz erakatsaraziz, eta olerki sutsuak idatziz) ondoko irlandar gobernuek ez dute hizkuntzaren arazoa inoiz seriotan hartu. Itxuraz bai, jakina: paperean, agirietan, axalean. Eskuindarrak egon dira nagusi Dublinen Eireko erresuma sortu zenez geroztik. Eta eskuindarrek, Irlandan eta nun-nahi, —behinola Orixeren lanak orrialde hauetantxe aztertuz erakutsi uste izan nuenez— FOLKLORE-gisa ikusten dute hizkuntzaren arazoa: besteentzako, gerorako, eguneroko bizieratik kanporako, urrutirako, zeregin ameslari eta ihes eragile gisa. Familian erdaraz, gure artean; baina mendigailurretan erdara entzunez gero, eskomikuen erretolika azkengabea! Gaelikoa, horrela, ezkertar abertzaleek berehala bultzada bat ematen ez badiote bederen, galdutzat eman daiteke.

Connolly-k, hirugarrenekorik, 1916ko altxamenduan buru-orde izana, pizkunde gaelikoa zeharo ontzat eta beharrezkotzat jorik ere, sozialismoaren bilakuntzan eta burrukan egina zuen bere burua. Connolly-k, eta berarekin batera Londresen aurka altxatu ziren sindikalistek eta langile gorriek, Irlanda sozialista bat eraiki nahi zuten; Connolly-ren hitzez esateko, «gizadi guztiarentzako itsasargi gardena» izango zen Irlanda sozialista bat. Honen ordez, berrogeita hamar urte honetan, ultramontanoak eta atzerakoiak gertatu dira nagusi.

Eta gaur euskaldun gazteek, noski, ez dute Dublin aldera ezertarako begiratzen.

---

Hain zuzen ere, ordea, hauxe behar genuke denok aztertu eta ulertu. Eta sozialistok batez ere.

Zeren-eta, hango gorabeherak aztertuak dituzten gehienek diotenez, Connolly hil ondoren behintzat, eskuindarren eskuetan utzi baitzuten irlandartasuna Irlanda-ko ezkertarrek; eta Londresen araberako abstraktokeria hutsaletan galduta, abertzale eta gaelikozale zen herriarengandik berezi baitziren, Irlandaren geroa hauek eta haiek irtenbiderik gabe utziz.

Badugu, beraz, euskaldunok, kaso honetan luzaz eta arretaz gogoeta eginik.

LARRESORO



# PANORAMA BELTZA

Lehengo batean, horra zer pentsatuz hartu ninduen loak: euskaldunok izaki desgraziatu batzu baino ez garela; euskaldunok gaitz izugarriren batek hezur-muinetaraino jota gauzkala; euskaldunok, geu konturatu gabe, ez ote garen pertsonaia arraro xamar eta interesanteak besteekiko, arrarotasuna eta interesa —hau ere konturatzeke— geure kaltetan esplotatuz; euskaldunok ez dakigula zer izan garen, zer garen eta okerrago dena, zer nahi dugun izatea; euskaldunok patu gaiztoren baten biktima garela, geuregandik inolaz ere aienatu ezin paturen baten jostailu erraz eta manakor; euskaldunok, ba, etorkizuna esperantzarik handienaz ikusiz batera, ez ote garen ari ur pozointsuetan geroz eta barrenago murgiltzen.

Norbaitek galda dezake, burutik egindakoren baten solasa ezik, beste zer izan daitekeen honelako erretolika zentzugabe, ukakor eta interes gutiren agergarria. Bainan, diodan, euskaldunok burutik arrunt jota ez ote gauden ere, haserako erretolikan sartu behar nuela, hau ere pentsatu bainuen loak-emeki hartu ninduen aurretik. Beraz, elementu bat gehiago baino ez nintzateke, Euskal Herriko (?) saltsa kurioso-misterioso honetan.

Eta lantuz eta nigarrez, hain errosario tristea burutik paperera jaulkitzera, zerak bultzatu ninduen, «EUSKALTZAINDIA IKER LANEZ» titulua zuen Mitxelenaren artikuluak, 657. Z. Argian argitaratuak. Artikulua irakurri ahala, euskal mundura jaio nintzenez geroztik (12 urte nuenez geroztik) nire odol eta haragi den frustrazioak geroz eta bortizkiago astintzen ninduen. Irakurri ahala, kasik dena negatiboa zitzaidan iruditzen. 12 urtetan astindu ninduen frustrazio hura bera hona hemen berriz ere, gupidarik gabe, haginka, adarka, herio minez hildura nahirik.

Norbaitek esan dezake ni oso pesimista naizela, eta bidebatez eta horrexegatik, elementu negatiboa, eta hori ez dela aipatu patu gaiztotik libratzeko behar den barne giroa. Bainan, diodan, euskaldunok arras ausart eta optimista garela ere, haserako erretolikan sartu behar nuela, loaren magalean leunleun bildu aurretik, hau ere pentsatu bainuen. Pentsatu nuen, bainan, matizazio batekin: ez ote garen inkoszientki hain ausart eta optimista.

Gure euskararen joanari begiratu bat eman eta uka ezinezko panorama beltza bistaratzen zaigu. Euskararen gaurko egoerari begi pasara bat bota eta panorama beltza. Euskaltzaindia 1918an sortu omen zen eta hiztegi mailan, aipatu artikuluan Mitxelenak dioenez, apenas gauza handirik dugun. Horrezaz gainera, zenbait hiztegi aberats eta egoki, ez zaigu ezagutzera eman. Etxeberri Sarakoarena, adibidez. Eta bitartean —hau paradoxa!— milaka eta milaka haur ikastoletan eta tajuz antzeko hiztegi bat bakarrik ere ez neska-mutikoen eskutan. «Gramatika arloan ilunbetan dauden hauzien kontua ezin konta ahalekoa litzateke», dio Mitxelenak berak. Euskal Herria «filologoz eta gramatikalariz» alderik alde josita dago, nahiz eta hauetako zenbaitek euskara bera ere jakinez, eta halere —hau paradoxa miresgarria!— euskal gramatika bat bakarrik ere ez ikastoletako milaka eta milaka neska-mutikoen eskuetan. Ez hiztegi, ez gramatika eta ez diru, hasi dira ikastolak ernetzen, andereño-maixuak dakitentxoa (mespreziorik gabe) nola edo hala, bainan borondaterik onenaz irakasten eta zera, «pentsatu ote den noraino eramango gaituen gramatika batera ala bestera erantzuteak». Eta pentsatu beharrekoa hau ere, dudarik gabe. Eta euskal literatura ez omen dugu behar bezain sakonki aztertu, batez ere azken aldietakoa. Eta... dena doinu hontako eresia.

Bai, euskaldunok izaki desgraziatu batzu baino ez gara, nonbait. Beltza baita gure panorama. Ez gara benetako abertzale eta horregatik gaude, gauden bezala. Eta halere, aitortu behar: gehienok ikusten dugu, urrutixeago bedaikere, beste panorama bat, itxaropenezko berdetasun bizia, deseoaren deseoz sekulan ailegatzen ez zaigun udaberriaren egun-sentia.

JON URRUJULEGI

# ZENBAT GARA

## Berriak

Aurreko asteetan esan dugunez, azaroaren 1 eta 2an **Euskal Liburu eta Disko Azoka** izango dugu Durangon.

Euskal editorialik errepresentatiboenen informazio laburra ale honetan irakurri ahal izango du irakurle interesatuak.

● Azaroaren 16an **Antzerkilarien Biltzarra** eratuko da Hazparnen, Daniel Landarten eragin eta ardurapean.

Biltzar horretan ipar Euskal Herriko antzerki talde guztiek hartuko dute parte, elkarren berri jakin eta elkarren artean euskal antzerki mugimenduaren ikusmoldeak zabaldu asmoz.

Bilera «Haritz-Barne» elkartean eratuko da, goizeko 10etan.

● Eguberritan eratzeko da aurten ere Gasteizen, **Euskal Liburu eta Disko Erakusketa.** Honako ekintza hau Aita Erramun Olabide Ikastolako arduradunen inguruan antolatzeko da.

Erakusketaz gainera, beste zenbait saio ere nahi litzateke osagarritzat eratu. Hainbat lanean ari da dagoeneko.

● Hasiak dirateke Sasiolako Abatetxeko obrak. Asmo horretan arduradun den «Sasiolako Adiskideen Elkarteak» arte museo bat moldatu nahi luke bertan, eliz-sapaia amaitu bezain laster.

Museo horretan Deba inguruko edozenbat arte mota eta esku-lan tresna bildu nahi litzateke.

● «Diario de Navarra» egunkarian irakurtzen ahal dugunez, % 15 nafarrek euskaraz omen dakite. Nafarroak 486.607 biztanle zituen iazko abenduaren 31an. Euskaraz zekitenak 63.000 ziren herrietan, eta 11.000 Iruiñean bertan. Guztiz 74.000, % 15 alegia.

● Frantziako Barne Ministeritzak ENBATA erakunde abertzale galarazi du.

ENBATAK duela bi urte egin bide zuen inpugnazioa ez du estatu galoak onartu.

## Aresti poetaren omenez

**Arestiren heriotzak hainbat gogoeta, asmo eta eragin sortarazi zuen.**

**Elizkizunak amaitu orduko bere edozenbat lagun, adiskide eta kidekok lanari ekin zion, poetak utzitako emaitzak eta haren oroitzapenak ondoko ekintza bat merezi zutelakoan. Geroztik, bizpahiru liburu eta beste planen bat edo beste burutzen ari dira haren oroigarri.**

**Dena, den, ardura horren lehen ondorio publiko bezala jo dezakegu Deustuko Euskal Kultur Mintegiak prestatu duen programa.**

**Lerro hauk idazten ari garelarik ez dugu egitarau guztia zehatz mehatz jakiterik izan, baina hona gutienik, azaroaren 3tik 7ra arteko bost egunetan eratuko diren saioen aipamena.**

**Hiru hitzaldi izango dira segurutik, laugarrena ere izan daitekeen gauza bada ere. Lehenean, Luis Haranburu-Altunak Arestiren poesia irakurketa egingo du, eta Ibon Sarasolak, berriz, poesia horren azterketa.**

**Bigarrenean, Juan San Martinek Gerra osteko Euskal Literaturan Arestiren eragina delako gaiaz hitzegingo du. Eta, hirugarrenik, Jon Juaristik, Arestiren euskal izaera edota «Bilboko desherrian» euskaldun izateko arrazoiak agertaraziko ditu.**

**Horrez gainera, ostiralean behar bada, «Ozkorri» taldeak Aresti zenaren olerkiak kantatuko ditu.**

## Titulu ofiziala?

Hazkuntza eta Zientzia Ministeritzaren Gipuzkoako Ordezkaritzak gutun bat bidali die probintzia honetako eskola guztiei.

Gutun horrek dioenez, Gipuzkoa Espainiako rejio bilingue batetan kokatua dagoenez gero, garai da herri hizkuntza mailan eskolaurreko eta O.H.O. direlakoen programari nolabait hasera emateko.

Programa hau aurrera atera dadin, euskal irakasle eza da Gipuzkoako Ordezkaritzaren ustetan problemarik larriena. Hutsune hau bete nahirik, irakasleentzat bereziki burututako ikastaro batzuk eratuko dira Donostian, Ministeritzaren ardurapean.

Ikastarook eskola-ordu ostean eratuko dira, hiru egun asteko. Ez da ordurik eta ezta tokirik ere aipatzen. Ikastaroetan parte hartzen dutenak aldez aurretik erabakiko den maila batera iristen direnean, Hazkuntza eta Zientzia Ministeritzaren Titulu Ofiziala emango zaie, eskolaurreko zein O.H.O. direlakoetan euskara (ez euskaraz) irakatsi ahal dezaten.

● Honaino albistea. Eskola maisu eta andereño guztiek dagoeneko dakiten albistea.

Geroztik, gure aldetik jakin ahal izan dugunez, harako ikastaroa azaroaren lehen astean hasiko omen da, Donostiako Usandizaga Nazio Institutoan, segurutik. Asteko hiru egunez, goraxeago esan bezala, arratsaldeko 6,30etatik 8ak arte.

Ez programa, ez metodologia, ez Euskaltzaindiarekin eta ez Euskaltzaindirik gabe, ez epai-mahaikoen eta ez bestelako zehaztasunik ez dugu inolaz ere jakin ahal izan.

Ez dugu berri soila baino aipatu nahi izan. Hainbat galdera airean geratzen da. Denborak erantzungo digu.

## Zine Independientea

Udan eratua da Almerian, Espainiako Zine Independientearen I Nazio Erakusketa. **Honako hau eta ez beste izan da antolatzaileek jarri dioten izena, «Información y Turismo» delakoak amateur deitura ezarri badio ere, badaezpada** «independiente» **eta** «profesional **kontzeptoak elkarrekin ezkon ez daitezen edo.**

**Bataz beste hirurogeiren bat filmek hartu du parte, Catalunyakoak gehienak eta Euskal Herrikorik bat ere ez. Dena den, aurkeztuko diren filmeak baino, beroien inguruan sortu diren jendaurreko elkarrizketek osatu dute erakusketa honen alderdirik baliotsuena, zinearen funtzioa giza-komunikabide bezala aztertuz.**

**—Han bilduok nolabaiteko manifiestu bat burutu eta jakinarazi zuten. Euskal zine bat asmatu nahirik ari garenez, laburki bada ere aipagarri iruditzen zaigu:**

**1.—Orain arteko «zine independiente» delakoak behar du izen-deitura zehatzago bat, «ideologia hautamena» nahita-ezko baldintza izango duen zine mota bati atxikia zaionez gero.**

**Era honetan, gaur eguneko ideiologia menderatzailearen aurka aldaketa bat proposatzen duen zine motari «Hautamen Zinea» deituko diote. Honako zine honek aginte ideiologiak agertarazten duen kultura hautsiko du, egungo zine produkzioaren egitura eta zabalkundea deseginez.**

**2.—«Hautamen Zine» honek bi helburu nagusi izango ditu:**

**Bat. Egitura aldaketa bat, produkzio eta zabalkunde bide berriak sortaraziko dituena.**

**Bi. Tokian tokiko sozio-politik egoeraren lekuko izango den zinegintza bat.**

**3.—Zine kontzepzio honen berezitasunik nabarmenena giza-funtzio bat bete beharra izango da, industria zinearen alderantziz.**

**4.—Zabalkunde aukerak aztertuko dira, herri komunikabide (zine-club, zine-forum etab.) egokiagoak kontutan hartuz.**

**5.—Partaide guztiak bat datoz, gaur eguneko zentsuraz ez dagoela «hautamen zine» mota honekin jaurraitzerik. Hain zuzen, lehen erakusketa honetan zenbait filme galarazirik izan da, eta beste zenbait ez da azaldu ere, egileek aldez aurretik bai baitzekiten ez zirela beren filmeak onartuak izango.**

**6.—Erakusketa honetan bilduok, edozein tankeratako zentsura kentzea eskatu dute.**

**ETA...**

## Eta . . . disko berriak

Durangokoa, liburu azoka ezezik, disko azoka ere badela, sarri eta erraz asko ahaztu ohi dugu. Aldizkarietan idazten dugunok lehen eta behingoz idazle garenez gero, badirudi inprimategiko frutuei graba-




zio-estudiokoei baino jaramon gehiago egin izaten diegula.

Noski, sektore bakoitzak bere eginbeharrak ditu, bai eta bere publikoa ere. Izan ere, biak dirateke elkarren arteko gonbaragaitz bezain osagarri.

Eta, diskoei buruz ari garenez gero, disko berri pila bat izango da aurten Durangon. Behar bada, ez dugu uste inoiz honenbesterik aurkeztu izan denik.

● Azoka hasi baino zenbait aste lehenago prestatuak dira XALBADOR, MATTIN, KEPA ENBEITA eta ENBEITARRAK izeneko lau disko handi. Honako lau hauekin, «Edigsa-Herri Gogoa» delako disketxeak bertsolariei eskainitako sail berri bati ekin nahi dio.

XALBADOR eta MATTIN izenburuko diskoek ez dute, agian, argitasun handirik behar, gaur eguneko bertsolaririk ezagunenetakoak direnez gero. KEPA ENBEITA, berriz, Muxikako «Urretxindorra» zena dugu. Beronen hamabi bertso zahar biltzen dira disko honetan, haren semea den Balentinek kantatuak, diska azalean aipatzen ez bada ere.

ENBEITARRAK izenekoan, azkenik, beste hamabi bat bertso azaltzen da, azken ehun urteotan enbeitarrek burutuik. Balentinek kantatzen ditu bereak nahiz aita zenarenak, eta Abel eta Jonek, berriz, nork bereak.

● Bertsolarien lau hauk aparte, kalean dira ADARREZ ERESALDIA eta 4 + — 3 = 1 ELEKTRONIKAN izenekoak ere.

Lehena, Donostiako Musika Kontserbatorioko katedratiko den Juan Manuel Gomez de Edeta adar-joleak (?) —tronpajolea, alegia— taxututako eres disko bat da. Adarraz gainera, txistua (L. Udakiola), atabala (L. Altuna) eta kontrabaxo, piano, organo elektroniko eta bestek (S. Galarza) osatzen dute eresaldi hau, «Erreberentzia», «Festara», «Ezkongaietan», «Pello Joxepe», «Hiru Damatxo» eta «Agur Jaunak» bezalako titulu popularrez baliatuz.

4 + — 3 = 1 ELEKTRONIKAN deritzana, Tomas Aragues-ek eratua da. Donostiako Kontserbatorioko irakasle berau ere, berrehun obra eta hogeita hamarren bat diskoren egile, erlijio musika berriaz espezialista.

Elektronika hutsez egindako euskal eresien disko bat da, erabat laboratoriozko musika, sekula egin den lehendabizikoa. Azalean dioenez: «Diska honek ahalmen berri batzuen lekuko eta aterabide berrien bide-erakustaile izan nahi luke. Gure artean orkesta baten jabe ez den konpositore asko dago, eta horrela, beren lanak ezin agertu eta ezin estrenatuz, anonimatorik ezin aterarik dabiltza. Beraz, uste dugu, diska honek aterabide berriak agertuko dizkiela».

● Lerro hauk moldatzen ari garela, oraindik agertu ez diren arren, dagoeneko grabaziotan eta azkenengo prestaketetan ari den beste disko sorta baten berri ere lortu ahal izan dugu:

TXOMIN ARTOLAK, «Bordari»ren semeak, bere lehen diskoa aterako du, aitak arrantzaleei buruz sortutako poemez osatua.

ANTXON VALVERDE kantariak, Gandiaga, Lizardi, Artza eta Leteren olerkiak entzulego zabalago bati ezagutarazi nahi asmoz, beste disko handi bat azalduko du.

Ipar aldeko PEIO ETA PANTXOA bikoteak ere, hego aldean egindako lehendabizikoa aurkeztuko du Durangon, pasatu ahal izan dituzten kantak agertuz.

SAKABI-EGAÑAZPI trikitilariek ere beren diskoa izango dute azokan, bertso, poema eta kantazaleei ezezik, trikitilariei ere beste horrenbesteko aukera eskainiz.

Azkenik, EUSKALDUNEN ORGANU ERESI HAUTATUAK deritzan diskoa, Durangoko Azokan ikusi ahal izango dugu. Gai honetako lehen disko honekin, beste sail berri bati hasera eman nahi dio Iñaki Beobidek.

Esteban Elizondoren zuzendaritzapean, euskal organu-joleek egindako gauzarik onenak nahi lirateke jaso eta bilduma pare gabe batetan agertarazi. Lehendabiziko disko hau Tolosako Joakin Pildain-ek joa da, eta Gorriti, Mokoroa, Buska Sagastizabal eta Elduaien konpositoreen eresgaiak jotzen ditu, Bergara eta Loiolako organuetan jo ere.

Bada gero berririk diskozaleentzat, eta baita, hain zaleak ez direnentzat ere.

## Irun hiri sariak

**Aste honetako orrialdea erabat buruturik dugula, jakinarazia da hilaren 25ean aurtengo Irun Hiri Saria.**

**Euskarazko sariei bagagozkie «Jose de Artetxe Saria», poesiazko saria alegia, inori ez zitzaion opa izan. Mahaiko: Juan San Martin, Jon Etxaide, Milagros Bidegain, Jabier Aranburu eta Antonio Zabala.**

**Ipuin sariketan, berriz, Luis Haranburu Altunak irabazi zuen lehen saria: urrezko gaztelua eta 35.000 pezeta.**

**Bigarrena, Fernando Artolak: 15.000 pezeta.**

**Hirugarrena, Luis Haranburu Altunak.**

**Mahaiko, Jose Antonio Loidi, Antonio Arrue eta Juan Goikoetxea.**

**AMATIÑO**

# LIBANOREN KINKA LARRIA (III)

## ERAKUNDE ZAHARKITUA

Libanoko erresumaren politik antolamendua, 1943an egin zuten Aberri-egiunearen ondorio da. Frantziako mandataritzapean izan zuten eraginez, Mendebaldeko demokraziaren tankerara egindako parlamenta baten heitea eman zioten.

Erlijio talde desberdinen indarrak eta biztanleen demografia legeez gidaturik, politik-erakunde zehatz eta komplejo bat biribildu zuten. Gisa honetan, alderdi politikoek kontuan hartzeke, Errepublikako lehendakari, nahi-ta-ez, beti, maroniar-giristino bat izan behar du. Egun, Soliman Fragié den bezala. Lehen ministru, sunnitar-musulman bat. Gobernu-ganbarako Buruzagi berriz, txihitar-musulman bat behar du izan.

Konstituzioak agintzen duenez, diputari, 99.izan behar dute. Hauetarik, 30 maroniar, 20, sunnitarrak, 19, txihitarrak, 11, greku-katolikoak, 6, greku-ortodoxoak, 4, armeniar-ortodoxoak, etab, etab. Kontuan izan behar dugu, agian Libano dela mundu guzian, estatu multikonfesional bakarra, non, erlijio talde bakoitzak bere estatuto berezi bait du, legez zilegiztaturik.

Gobernuko indarren b a n a ketan, maroniar-giristinoen gehiengoa agerian datza. Harmadan ere, beste horrenbeste sumatzen dugu. Militarrik ahaltsuenak betidanik, g i r i stinoak izandu dira. Baina, orainarte bederen, Libanoko gudarostea ez da "golpezale"izan. Eta Ekialdeko industririk gabeko aberrien ejerzitoek ukan duten funtziorik sekula ez du bere bizkar hartu izan. Hogeita hamabi urtetako kondaira honetan, militarrak ez dira gobernuan sartu; aurtengo Maiatzean denbora labur batetarako ezik.

## DEMOGRAFIAREN DESOREKA

Ekialdeko feudal-ingurumarian, demokrazia ezpaleko erakunde batek, hogeita hamabi urte irautea bada aski merezimendu. Libanok, edozein aberri bezala, problemaz beterik egonarren, gizarte-oreka bat ezagutu du. 1943an, sineskera desberdinen eta bizilagunen kopurua gogoan hartu zen.

Gaurregun, 1943ko bizilagunen demografia arras aldaturik dakusagu. Azken urteotan, musulman sineskerako taldearen hazkundea, giristinoena baino ugariagoa izandu da. Bestalde, 1969an onartu zenez gero, Palestinako aberri zanpatuaren zati bat Libanora bildurik dago. Demografiaren oreka, horretara, garai batetako sistimaren zutabe zena, erabat galdua da.

Demografiaren alboan beste arazo larri bat gertatzen da Libanon: azken urte hauetan giristino taldeak, ondasun izugarrien jabe egin dira. Finantza bideak, egun giristionoen esku daude. Alderantziz, musulman-txihitak kalegorrian biluzi eta lanik gabe daude. Berauek dira, palestinar errefijiatuekin batera Libanoko giza-talderik zapalduenak.

Sineskeraren arloa gaindituaz, Libanok, bere sisitima birberritu beharra daduka, gaurko premiek eskatzen dioten arabera.

ANATSAN


Donosti-Aurrezki-Kutxa

EUSKAL IRRATI SAIOAK



Banen baneko azika!
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira joan etorriak

Baserriaren alde



Ez Merkenak
Bai Onenak!

Janari bidez bazten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar buruzuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko penteuak.

FANDERIA
ERRENTERI


# PORTUGAL DELA TA

«Oliveira sustituido por el Ejército: de tal palo tal astilla...», horrela dio Baltasar Porcelek DESTINOn idatzitako artikulu interesante batean, eta egia da. Hango errealitatea, denborak klarifikatua, hobeki ari gara ikusten eta han gertatua ikaskai ona izan daitekeela euskaldunontzako pentsatuaz, noakizue adieraztera.

Nahiko ongi dakigu, Portugalean gertatutakoak pizterazi egin zuela zenbaitengan itxaropen berri bat. Mundu guztiko «iraultzaileak» Portugali begira izan genituen, ez dakit zer esperoren zai.

Seigarren gobernura heldu gara eta inork ez dezake esan hemendik hilabete batera zer gertatuko den. Dena posible da. Horrekin den dena esana dagoela uste dut. Klabelinen garaiko kutsu romantikoa pasa ondoren, krisis eta inestabilidade handi bat besterik ez da ikusten. Orain konturatzen ari gara faxismoa botatzearekin ez dela nahikoa. Faxismoaren ondorioak baztertzea, uste genuen baino zailagoa da.

Jadanik, aski garbi ikusten duguna **zera da:** Portugalen behintzat, **nahiz eta errepikek** bestela esan, herriak ez zuela gobernua bota, militarrek bota zutela, eta militarrek bota bazuten ere, ez zela antifaxistak zirelako izan, alajaina. Maila handiko kargu militarrera ez da kasualidadez heltzen eta are gehiago faxismoaren menpean. Gobernuaren aurka jarri baldin baziren eta bota baldin bazuten, gerra koloniala galduta zegoela, inork baino lehenago ikusi zutelako izan zen. Beraiek egiten ari ziren gerla galtzen ari zirelako, ridikuloa egiten ari zirelako. Erderaz esaten den bezala «por razones de casta». Ez dezagun besterik pentsa. Beraientzako aterabide bat bilatuz, galduta zegoen gerra bat egitera bidaltzen zituen Gobernua, bota beharra zegoen.

Beraik ziren Gobernua aldatzeko posibilidadeak zituzten bakarrak. Gobernua botatzeko, behar den nahitanahiezko baldintza zuten. Gobernu horrek baino indar gehiago edukitzea, alegia. Herriak ez zuen indarrik, militarrek indarra zutenez gero, beraiek egiten ez bazuten, ez zuen inork egingo.

Normala denez, mugimendu horri ideología eman behar zaio, ez dadin bere benetako sustraia gehiegi nabari. Hasiko zaizkigu, beraz, «sozialismoz» eta «askatasunaz» mintzatzen, baina berdin da. Bere barnean duten faxismoa berehala agerteraziko digute. Boterean jarri ondoren, ez dute pauso dexente bat eman. Ezagutzen ez duten tresna baten jabe dira. Tresna horrekin umea jostailu berriarekin bezain pozik daude. Noda doazen ere ez dute sumatzen. Batasunik gabe bere barnean, demagogiatik aparte ez dute ezer egin. Hauteskundeetan agerturiko herriaren nahiari kasorik ere ez diote egin. Ez dute boterea utzi nahi, nahiz eta erabaki inportanteenetan hankea sartu. Tinko jarraitzen dira. Otelo... Vasco... Azevedo, hoik ahal dira Portugali aterabide bat eman behar diotenak? Frustadu hoiek, etorkizuna argitu?

Eta alderdiak bitartean zer? Bada, militarren kapritxoak jasan eta uzten badie zerbait egin. Militarren jokoa garbi dago; Herriaren izenean, baina Herriarekin kontatu gabe. Hala eta guztiz zerbait aipatu beharra dago, egia esateko, Portugaleko alderdiek ez dute maila apartarik erakutsi. Aitzitik, nahiko kaxkarrak direla adierazi digute. Bere joerak ez digu konfiantza gehiegi sortarazten.

Alderdi Komunistaren kasoa eta bere Cunhalen joera nabarmena da. Hain takto gutiko gizona nola egon liteke politikan sartuta? Alvaro Cunhal ez da konturatu Mendebaldeko Europan kokatua dagoela Portugal. U.S.A.ren baimenarekin bota zutela militarrek Caetano. Hain txiki eta indar gutiko Herri batek ezin dezakeela ezer inguruarekin kontatu gabe. Inguruaren laguntza nahitanahiezkoa zaiola. Berlingueren joera kasualidadea ez dela. U. R. S. S. oso urruti dagoela. Cubaren afera defiziotaria izan zela. Hots; bere planteamenduak guztiz gaindituta daudela.

Eta Soaresen joeraz zer esan? Deus baino lehen, sozialista latino bat denez gero, nahiko mesfidantza sortzen digu. Bere joera, tipo eklektiko baten joera klasikoa besterik ez da. Bere arazo inportanteena zera da; «ezkerrekoei», bera ere «iraultzaile» dela sinesteraztea da. Eta zer...?

Egia da militarrek ez dietela gehiegi egiten utzi, hala eta guztiz beraiek ere ez dakite aprobetxatzen Portugalen eta Europan duten indarra. Bere antikomunismo hori aprobetxatuz arrazoi elektoralengatik, lortu zuten ehuneko xifra hura. Zoritxarrez, kapazidade horren atzean ez zegoen planteamendu pragmatikorik.

Eta P.PD.ren kasoaz zer esan? Eman behar zituen teknikoak nun dira?

Alderdiak ere, normala denez, faxismoaren semeak dira, faxismoaren eragina daramate. Herri subdesarrollatuak dira eta nola ez? Bere ahulezi politikoa nabari da. Beraiek ez dute kulparik, faxismoak ditu kulpa guztiak baina, zoritxarrez, ez da nahikoa. Faxismoak sortutako arazoei, nork emango die erantzunik? Eta politika hori da, *fraseologia bazterturik, arazoei erantzuna ematea.*

Dena dela, guretzako ikaskai ona izan zitekeela genion, hel diezaiegun bada, atera daitezkeen konklusioei.

1.—Portugal ez dezagun *eredu* bat bezala ikusi, aitzitik, gertatu behar ez den eredu bat bezala. Berriz diot, Herri txikien politika, *inguruak* erabakitzen du gehienbat. Inguruak ematen dizkizun edo proposatzen dizkizun bideetatik abiatzen bazara posibilidadeak izango dituzu eta bestela, oso exkasik. *Gaurko Mendebaldean, Herri txikiek ez dezakete modelo exotikorik har.* Europan gaude, bere bidetik abia gaitezen. Desarrollo bidetik sar gaitezen, desarrollo horren aurka dauden oztopoei erantzun emanaz. Hori baita sozialismoaren bide bakarra.

2.—Gaur politikaz mintzatzen hasten garenean, helburuak lortzeko *medioez* behar dugu hitzegin. Hau sarritan ahaztu izan dugu. Orain, gauza berbera gertatzen ari zaigu, *zer* nahi dugun nahiko garbi dago, *nola* lortu da arazoa, eta hildo hontatik flexibilidadearen beharrarekin topatzen gara. Krisis garai hontan, denen beharra dago. Inork ez du gauza guztietarako erantzuna izaten. *Batasunaren beharra* dago. Beraren beharra izugarria da. Hortarako, bakoitza bere ezjakintasuna aitortuz joan dedila bestearengana, bestea bere zai dagoela seguridade osoa izanik. Krisis garai hauetan bakarrik edo ta, are gehiago, *batasunaren aurka joatea salatu beharra dago.*

Besterik ez, irakurle azkarrak artikuluaren mamia nun dagoen berehala ikusiko duen esperoz...

AURTIZ

Zeruko Argiako harpidedun bati, bilduma osoa kolekzionatzeko, 100 garren zenbakia falta zaio, 1965koa.

Inork eman edo saltzeko moduan edukizgero, dei telefono honetara: 213396 edota Zeruko Argiara. Eskerrik asko.


Transportes azkar s. a.

ERAMAN - EKARRIAK, KAMIOI AUNDIAK
Barcelona Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.
Donostitik egunero.
Iruña, Bilbo, Gasteiz, Alicante, Elche, Elda, Murcia, Cartagena, Granada, Almeria, Santander, Valladolid, Zamora Palencia, Salamanca
Astean Irutan:
Malaga, Sevilla, Jerez de la Frontera, Cadiz, Lugo, Coruña, Orense eta Vigora joan etorriak.
Hernanirako bide nagusian, ERGOBIA auzoan, DONOSTIAN.
Urrutizkiñak: 552650 - 552654
Apartado 1381






YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA



# ALGORTA ETA EUSKERA

1. Algorta erriari eskerrak emoteko bearrizana daukat. Bearrizan ori ez da gaurkoa, aintxiñatik dator. 1929. urtea zen. Orduan asi ninzen bizitzen Arratiako nire erritik kanpora. Nora joan nintzen? Algortara, noski. Bost urte egon nintzen erri eder onetan. Bai, nire bizitza osoko ederrenetarikoak izan ziren egun orreik. Gero, Jaunaren eskuak eroan nau mundu zabaleko bideetatik zear. Atzerrian egin dudan ibilte ori oso luzea eta luzarokoa izan da; bataz beste, ogeita amazazpi urte, bai Frantzian, bai Italian, eta batez ere Afrikan. Asko eta asko izan dira ikusi ditudan lurraldeak. Ez bakarrik ori. Ikusi ditudan gizon-emakumeak oso desbardiñak izan dira izkuntzaz, erlejiñoz, oituraz, kulturaz, eguraldiaz, etab. Egia esan bear badut, edonun euki ditut lagun onak, adiskideak, bai seguru. Halere, ikusi ditudan erri guztien artean Algortak itxi du nire barruan oroigarririk gozoena, begikoena. Pozik esaten dut au emen denon aurrean.

2. Ori guzti ori olan izan arren, beste gauza bat dela-ta dator gaur ZERUKO ARGIAko orrialdeetara Algorta: bere euskerazalatasuna dela-ta. Eta orrekin ez dut esan nai gaur agiri den euskerazaletasuna nolanaiko umekeria bat denik, ez. Euskerazaletasun orrek sustrai zaarrak, leendik datozenak daroaz, gero eta sendoagoak doazenak. Zu, Bilbotik Algortara bazatoz, naiz trenean, naiz autobusean, laster ulertuko duzu euskal-usaiña: *Alango-barri, Garbi-leku, Etxerako*... Aldi baten ikusten zen «Ongi etorri». Baiña etxebarritze bat egin da, eta ordurik ona toki orretan ipini dute «Telletxe». Bai, ongi etorri izango zara erri onetara zatozenean, alde batetik emeko jendea oso begikoa delako; itsas-ondoko aize au osasungarria delako.

3. Nun eta zelan agertzen den euskerazaletasun ori, euskal-kulturaganako maitasun ori? Neure lagun askorekin itz egin dut, eta denak, eta beti ao batez autortzen dute ori. Beste aldetik, Algortan eta bere inguruan dagozan Ikastolak gogoratuez gero, argi eta garbi ikusten da Euskalerriko zatirik onenetarikoa gure kultura arloan. Sarritan entzun dugu euskeraren etorkizunerako gauzarik garrantzitsuena Ikastolak direla. Izan ere, aurrak eta gazteak dira biarko zuzendariak. Eta «biar» orretan egongo da euskal-kultura, «biar» orretan gure izkuntza errikoa izango da gaur gure Ikastolak asko eta gaztez beterik ikusten baditugu. Leengo egun baten itandu eustan Bilboko emakume batek: —Zer egin nezake Euskalerriaren onerako? —Nire erantzuna: —Aal duzun neurrian lagundu Ikastolari!

Euskaldun batzuk euren denbora alferrik galtzen dute eztabaida luzetan, eta gero atzamar batekin ez diote laguntzen Ikastolari. Ez dira olakoak Algortarrak. Buru-auste asko, diru asko, lan asko dabil emen batetik bestera Ikastolak direla-ta. Nire ustez, bide onetik doa erri au.

Ona izango da emen beste gauza bat gogoratzea. Euskerazko mezak: Trinitarioetan (San Martin, 6): 10,30etan; San Nicolas de Bari: larunbateko 18,30etan; San Martin de Tours: 11,30etan; Trinitarioetan (Ollarretxe): 10etan.

4. Diñoguna gogoan eukiez gero, benetan esan dezakegu Euskalerri osoan ospe eta aintza aundia lortu duela Algortak gure izkuntza zaarra dela-ta. Gaztelaniaz esaera bat da: *Cobra buena fama, y échate a dormir.* Baiña ez noa ni Algortarrei lo egiteko esaten. Gauza batzuk ondo eginda egon arren, beste asko dagoz egin barik eta egin bear direnak leenbai leen. Badakizu zer esan zidan leengo egunean algortar emakume jator batek? Gure alkar izketa euskerari buruz zen. Badiñotsat poz-pozik erri au oso euskerazalea dela, emen biotz euskaldunak dagozala, etab. Berak, orduan, erdi triste erdi asarre: Bai, Algortarrak beti «gu euskaldunak gara, gu euskaldunak gara» esaten, eta gero iñok ez du euskerarik kalean egiten!

5. Orra or arazo garrantzitsua: EUSKERA KALEAN. Egia esan bear



bada, gaur egun egundo baiño liburu eta aldizkari geiago argitaratzen da; Ikastolak ugarituaz doaz; euskal ume eta gazteen artean txapelketa asko egiten da... Guzti ori ondo dago eta bearrezkoa da, baiña ez da naikoa. Guzti ori egiten badugu, elburu bat dago, eta egon bear du, gure artean: EUSKERA KALERA EROAN. Euskaldun biotz batek bestelako atsegiña sentitzen dau kalean Aitoren izkuntza ederra entzuten duenean, esate baterako Bilbon, Algortan! Denak ikusten dugun bezala, Algortak uri aundi baten antza eta itxura artuz doa, gero eta garbiago, gero eta politago, etab. Orrekin batera, euskal kultura artu eta landu bear du erri onek. Eta gauza guztien aurretik kalera atera bear du gure izkuntza, kalean euskera geiago entzun bear da. Ederki dago —eta txalogarria da— gurasoak euren umeak Ikastolara bialtzea. Baiña ori ez da naikoa. Umeak eta gazteak bultzatuak izan bear dira kalean euskeraz itz egitera. Ikastolan ikasten dutena kanpoan erabilli bear dute.

6. Auxe geure buru barruan sartu bear genuke: euskeraren onerako lan egiten dugunean, Euskalerri osoaren eta mundu guztiaren aberastasunerako lan egiten dugu. Ona emen zer diñoan Vogt jaunak, Osloko (Noruega) Univertsitateko irakasleak: «Indo europeoarrak Europara etorri baiño askoz leenago ainbeste izkuntza entzuten ziren lurralde onetan. Denak ondatu eta galdu dira Euskera izan ezik. Euskera bera —au miragarria!— bizi-bizirik aurkitzen da gure egunotan. Olan Euskaldunak asko laguntzen digute kanpostarroi Europako zibilizazioa, baita mundu osokoa ere ikasten eta sakontzen. Atzerritarrak itxaropentsu gagoz Euskaldunak gero eta geiago erabilliko dutela kalean euren izkuntza. Olan izaten bada, mundu guztiko gizon jakintsuak laguntza aundia eukiko dute euren azterketak sakontzeko».

OLA

## ETXEGARAIREN OMENEZ

Karmelo Etxegarai hil zela 50 urte beteko dira datorren azaroaren 4ean. Azaroaren 2an omenaldi apal bat eskaini nahi dio Azpeitiko herriak.

11etan, elkar-meza.

12etan, batzarre irekia Udaletxean, Etxagarairen ohorez: Alkate jaunaren ongi-etorria, aita Villasanteren agurra eta Juan San Martin eta Joxe Antonio Aranaren hitzaldiak.

Batzarrearen bukaeran, Azpeitiko Udaletxeak Karmeloren oroitzapenez aurten eratu duen lehen idazlehiaketaren berri emango da.

Ordubiak aldera anaiarteko bazkaria Loiolako Etxaniz jatetxean.

ORMAZABAL - DAR DUNIXI
ETXEGINTZA TA ETXE-TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA
TOLOSA
Urrutizkiñak:
Etxekoa: 65 19 60
Landolakoa: 65 19 33
URRETXUA
Urrutizkiña:
Landolakoa: 67 17 84
ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn

# IPAR EUSKAL HERRIKO BERRIAK

### «GERNIKA» ALDIZKARI BERRIA LIZEOETAKO GAZTEENTZAT

**Azkenengo urte hauetan Baionako, Biarritzko eta iparraldeko beste lizeoetan amaika lan berri eder egin da, euskal bizitzaren puntu nagusienetarik batzuk, bertako gazteei azaltzeko. Egia esan, arlo honetan bada euskaldunik, asko gainera, lizeoko neska-mutilei egungo euskal arazoez mintza zaienik.**

**Esandakoaren lekuko bezala lizeokoentzat pentsaturik sortu izan diren aldizkari batzuk aipatu besterik ez dugu. Hona hemen aldizkari hauetariko batzuen izenak, guztiak euskaraz idatzirik: «Batasuna» Euskal Gogoak emana, «Etorki» Mendeberriko gazteek aterea, eta abar.**

**Aldizkariez aparte, lizeokoei euskal klaseak ere askaini zaizkie. Lizeoetan eta Lizeoetatik kanpora, euskarazko klaseak direla eta iparraldeko gazte asko konturatu da non den beren Herria. Oraindik ere lizeotarren artean erakusteko premia badela? Bainoski!**

**Guk euskaldunok, aspalditik dakigu, geure esperientziaz dakigu alegia, zeinen zaila den euskal kontzientzia apur bat alde batean edo bestean zabaltzea. Eta arrazoin askoren artean ofizial aldetik dator handienetako bat. Hau entzuteak bakarrik, lotsa eman behar lieke bat eta bi baino gehiagori; ofizial gizon edo agintariek, berek egindako legeak dioena ere ez dute sarritan betetzen. Baldin gero «burruka» egiten badugu, esan ohi digutenez, gure artean logika falta ez dadin egiten diegu burruka.**

**Lehen aipatu dugu, Mendebarrikoek argitaratzen zuten «Etorki» aldizkariaren izena. Orain, beste aldizkari batena, lehen aldiz egun guti dela argitara dena, gogoratu nahi dugu.**

**Aldizkari berri honen izena «Gernika» da. Oso ederki idatzita dago inprimategiko moldetan. Aldizkari hau ere Lizeoetako gazteentzat sortua izan da. Lehen zenbakiko gaiak entzute eta garrantzi handikoak direla esan behar da. Lizeokoek ezezik, beste euskaldun askok ere gustora irakurriko dituzte horrelako idatzlanak. Argazki batzuk ere badira. Denera lehen ale honek, hamasei orrialde ditu.**

**Zorionak Mendeberriko gazteei! Jarrai bekizkio heldutako bideari.**

### HARITSELHAR ETA MANEX JAUNA ALDIZKARIEI MINTZA ZAIKIE

**Duela zenbait egun, Baionako Erakustokian, Frantziako egunkari eta irrati batzutako gizonei mintzaldi polit bat zuzendu zitzaien. Arlo horretan ere, geuk behar dugu erabaki, nola eta zertaz hitzegin behar diegun beste herrietako jendeei.**

**Haritselharrek, Euskal Erakustokiko zuzendariak eta Manex jaunek hitzegin zieten berri emaleei.**

**Eta, zertaz hitzegin zieten? Frantziako Estatuak nola jokatzen duen euskal kulturaren zabalkundean alegia. Legeak ipini bai, hoiek ere guti eta erdizkakoak, eta gero bideak ebaki edo zaildu. Hara delako erakunde handi horren jokabidea zer bilakatzen den iparraldean.**

**Adibidez, Haritselhar eta Manex jaunak honako puntu hauk azaldu zizkioten izparringietako eta irratietako jendeari:**

**1.—Lege batzuk eman zaizkigu, baina lege horik betetzeko dirurik ez.**

**2.—Baionako Lizeoan, legeak dioenez, euskara erakusteko astean bederatzi ordu eman behar dira. Zenbat ematen dira? Bost ordu, besterik ez!**

**3.—Biarritzko Lizeoan, berriz, legeak agintzen dituen orduetatik bat bakarrik ere ez da ematen. Bat bakarrik ere ez! Eta legeak dio, baldin hamiar lagun bitzen badira astean hiru ordu eman behar direla. Eta Biarritzko lizeoan legeak eskatzen duen jendea eta gehiago ere bada.**

**Mintzaldi hau zela eta, asko hitzegin da iparraldeko izparringietan eta irratietan.**

### EUSKARA IKASI NAHI DUTENENTZAT IKASTALDI BATZUK MENDEBERRIKOEKIN

**Lehen ere egin izan duten bezalaxe, aurtengo Gabonetarako euskaraz ikasi nahi dutenentzat ikastarotxo bat antolatzeko asmoak azaldu dituzte Mendebarrikoek.**

**Oraingoz non, zenbat kostako den eta abar, ez digute esan. Bainan, aurreko txandatan pasatu zenaren berri badakigunez, segur gara aurten ere jende anitz bilduko dela ikastarotxo horretan.**

### LYONEN BILDU ZIREN

**«Mintzaira eta kulturaren aldeko elkartea» izeneko taldeak Lyonen eduki zuen aurtengo batzarrea. Igaz hemen, Isturitzen, izan ziren.**

**Gauza jakingarria da Europako mintzaira eta kultur zapalduen ardura duen elkarte bat badagoela. Bestalde, nork ez daki elkarteak egitea oso gauza normala dela, gaur egun behintzat? Dena den, etxekoez aparte kanpotarrak ere gure mintzairaz eta kulturaz arduratzea oso egokia eta beharrezkoa iruditzen zaigu!**

**URZOLA**

JOSE ZINKUNEGIREN
OPTIKA DONOSTIAN
URTEETAN LANEAN OHITUA
Hernani, 4
DONOSTIA

# ELIZAREN BERRI

## ZERTAN DA ELIZA HEGO VIETNAM-EN?

Beren irizpidean buruz buru diren aitorlarien iritziak jaso nahi nituzke.

Batetik, Vietnam-dik kanpora erauziak izan diren bi misiolarienak: egoera beltza da hangoa Elizarentzat bi hauen ustez.

Kermarec aitak hona zer dioen: zernahitarako paperak behar dira, dela arroz sorora joateko, dela eritegian gaixoren bat ikustera joateko.

Gobernu sistema honek hauxe lortu nahi du: bakoitzari bere pentsabide guztiak moztu, eta alderdi politikoari eman guztien izenean berak pentsa dezan.

Petitjean aitak hogeita zazpi urtez lan egin du Hue-ko seminarioan. Honen arabera, komunistak aipatu hirian sartu orduko, izua eta larria jabetu ziren hiri guztiaz. Dioenez, Hueko katolikoek hauxe eskatu diote Europara datorrenerako: zabal dezala lau haizetara han, Hue-n, guztiz zorogaiztoko bizi direla.

Bestetik, urte askoz Vietnam-en egon den serora baten aitorpena dugu. Hona zer dioen funtsean:

1) Eliza Vietnam-en, gobernu berri hau botereaz jabetu aurretik, orduko gobernuaren alde bezala ageri zen. Zuzenean politik ekintzarik egiten ez zuen arren.

Bakar-bakarrik, apaiz talde bat ausartu zen orduko gobernuaren abusoen kontra hitzegitera, eta bakearen alde mintzatzera. Komunistatzat jo zituzten apaiz haiek.

Hego Vietnam-go liberazioa joan den apirilaren 30ean burutu orduko, 1945ean Ho Chi Minh-ek Saingonen aldarrikaturiko araudia jakin erazi zion herriari gobernu probisionalak. Besteren artean: pagodak, aldareak, elizak eta kultu lekuak errespetatu egin behar dira.

Eta 1975eko irailaren 2an «hamar arauak» argitaratzen ditu: guztien gain, iragan denboraren kutsu guztia ezeztatu egin behar da: orduko legeak, arauak, inperialismoaren zerbitzuan ari izandako alderdi erreakzionarioak.

Ondoren, kontzientzi askatasuna aldarrikatzen da, eta erlijio guztien berdintasuna.

Guztiek jo behar dute askaturiko lurraldea ber-eraikitzera.

2) Senidetasun handia nabari da bir-eraikikuntza lan horretan.

Uztailaren 2an, esaterako, serora komentu batetan batzarre bat egin zen: 600 kristauren (tartean serora, fraide e.a.) aurrean, Iraultzaren zenbait leaders-ek hitz egin zuen.

Bestalde, Saingomgo apezpikuak kristau guztiei dei egin die bir-eraikikuntza lanean parte har dezaten. Orobat beste apezpikuek ere.

3) Gauza guzti horiek kontutan hartuz juzkatu beharko da, dio, misiolariak kanpora botatze hori. Ez da pertsekuzio bat. Gertatzen dena, hauxe da: vietnamdarrak harro direla beren burua lehen aldiz libro ikusteaz. Atzerritarren mende egon bait dira orain arte. Eta beren buruaren jabe izan nahi dute. Nola ez?

Eta xede horri buruz, misiolari atzerritarrak oztopo bezala ikusten dituzte: iragan denbora gogarazten diete, menderatzailea dakarkiete burura.

Beren baitan lasai bizi nahi dute.

Geroago? Gero gerokoak.

4) Etorkizuna?

Kristauek izango ote dute beren dotrina ematerik? Ez ote dira kutsatuko marxismoaz? Beren kontzientziaren kontra ari beharko ote dute?

Nork daki? Estatu totalitario guztiak ez dira berdinak. Bakoitzak bere tankera du marxismoa bizitzeko.

Vietnam-ek eredu bat izan nahi du demokrazia, askatasuna... bizitzeko. Marxista, bai; baina, guztien gain, nazionalista, baketsu, aske.

Gure mundu hontako zuhurtziaren maisuek zorakeriatzat eta sinplekeriatzat joko dute serora honen optimismo eta uste ona «Gajoa! Ez dakin gauza handirik komunisten jokamoldeaz!».

Halere, hor dago emazteki horren aitorpena. Eta gure arteko askok iragartzen duen zeru beltzeko ikuspegiaren ondoan, ez du gutxiago balio horrelako esperantzazko aitorpenak.

Besterenak hainbat behintzat, bai. Eskerrak zuri, serora «gajo» horri!

AMUNSA

oyal s.a.
Oyal eta eforru almazena
Paregabekoak
Bikañenak
GARIBAY, 4 - TELF. 14304
DONOSTIA

# Marxismoa eta eriotza

Gizon bakoitzaren eriotza deus ez da. Bere aurrean ez duzu izutu bear; bakoitzaren barne-kontzientzian sortzen da eriotzaganako beldurra; il dezagun bakoitz kontzientzia (Conciencia individual) ori; guziekiko (kolektibidadeko kontzientzia) sor dezagun gizon bakoitzean, eta, gaur, bakoitz kontzientziak ematen dizkigun eriotz arazo eta problematiak. Ez gaituzte geiago larrituko. Orrela mintzo oi da Marxismoaren zenbait Maixu.

Gosearen eriotzak, ez jakitearen eriotzak eta abar dira, biziki larritu bear gaituzten eriotzak. Gizarteko eriotza auek mendera eta azpiratzeko «Iraultza» egin bear da. Politika, ekonomia, ondasun eta jakite-kultura aldetik eraberri dezagun gizartea, erakunde eta kondizionamentuak guztiz aldatuaz, eta gizonarentzat ez da geiago *«arazo»* izango bere eriotza, diote marxistek.

Bakoitz eriotzaren problematikak, bakoitzaren biotz barnean iltzeko, gizarte kontzientzia batekin bizi bear du lurrean gizonak. Sozialismoaren Elkarte batean sorterazi bear dira ondasunak; *nere* eta *ni* il; *ni* eta *gizartea* batu; bakoitz-kontzientzia guziekiko kontzientzia egin eta zabaldu; guziekiko lanetan parte artzen duelarik, aski arrazoi eta zentzu badu gizonak bere bizitzari funtsa eta zentzu bat emateko. «Gizarte Sozialista» bat sortzeko, burruka bedi gizona eta bere burua illezkor egingo du, betirako biziko delakotz gizartearen kontzientzia barnean. Orain dela ogei bat urtetara arte, auxe zen Marxismoaren dotrina.

—oOo—

Gaur eguneko Marxismoaren maisuek, eriotzari buruz beintzat, leengo Sozialismoaren pentsaerak ez dituzte martzen. Ez da urrik eman ere. 1950. urteaz geroztik, batik bat, auzitan jarri leengo pnetsaera ori. Sartre Marxista Filosofoari ez dio onik egiten, Marxismoak aantzi eta mespreziatu duelakotz gizon bakoitzaren izatea eta dintasuna. Gizonari bakarka begiratuta, utsean gelditzen da eta orrelakorik ez dute onerizten gaurko eguneko Marxista maisu askok.

Edonork daki badirela marxisten artean, beren pentsaera, kristau pentsakerari urreratu naiaz, lan dagitenak. Era berean badituzu «Kristau Marxistak» deritzaten katolikoak, kristau pentsaera Marxismoaz anitz elkartu daitekeela, diotenak. Bakoitz eriotzari axola aundiegitxoa Kristauek emanik, gizartea aaztu egin zaiela, diote marxistek. Aberastu daitekeela, ordea, Marxismoaren pentsaera Biblia eta Kristautasunaren erakutsiekin. Marxista pentsalari batzuek urrutirago jotzen dute oraindik, diotenean: «Gizon bakoitza eta giza-izatea duten guziek, personalki, ezereztuta gelditzekotan, sozialismoaren iraultza funtsik eta zentzurik gabe gelditzen da eta iñolaz egin eziñezkoa da.

Gizartea zoriontsuagoa egiteko asmoz, bere bizia galtzen duen komunista gorri batek, Iraultzaren fruturik jaso gabe, mundua uzterakoan, nolatan sentituko ez du samintasuna bere biotz barruan?

Egin dezagun kontu, Sozialistek amesten duten «PARADISUAN» biurtu dutela lurreko bizitza, eta, lurralde guzietan, Sozialismoaren gizarte zoriontsua tajututa dagoela. Paradisu zoriontsu orretan, araindik orain ezkondutako bikote zoriontsu bat



bizi da. Egun batez, bat batean eta ez bearrez, kamioi aundi baten azpian txirtxillatuta gelditu dira. Errukarriak... Sozialismoa lur osoan garaille izanik ere, «bakoitz eriotzak bere garrantzi eta axola inolaz ere ez du galdu».

Sozialismoak amesten duen «Paradisura» iritsitakoan, ain justu ere, bakoitz eriotzaren arazo-problematika pisutsuagoa egiten dela esango nuke.

Sozialismoak ain bikain eta gozoa egin lurreko bizitza eta gero... il egin bear. Zer zentzu eta funts du «Paradisu» orrek? Paradisu orretan eriotz-arazoak geitu eta dardarra, izua eta larria bere baitan izango ditu gizonak.

Gizarte eta Kolektibidade utserako ez dela gizona Marxismoak aitortzean, eta sinetsi edo ez sinetsi, bakoitzaren betikotasunean, bere jarraitzaillei libro uzterakoan, soluzio bide bat arkituko dio eriotz problematikari. Aukera, libre uztean, Marxismoaren pentsaera kristau pentsaeraz urreratua geldituko da.

Betiko bizitzan sinesten dutenak, lurreko arazoetatik ies dagitela? Ez dute arrazoi osoa orretan Marxistek. Naasian ikusten ditugu lur onetan «Ateo-kontserbadore eta Ateo iraultzaileak. Badira, bai, sinismendunen artean lurreko arazoak xos bat axola ez zaizkienak. Baditugu, ordea, ain justu ere sinismendun direlako, lurreko arazoetan murgilduak lurreko bizitza sakonki aldatu naiaz. Sinesmen, itxaropen eta goimaitasunean oinarriturik, lanean biziro diardute gizarte aldaketan.

Au da kristau sinismena: Bada betiko zorionik eta bere bila goaz. Sinismen orrek bultz dagit ordea, lurreko kompromisotan sartuta, gizarte eta gizataldearen alde nere bizia emateko.

Dena dela, marxisten aurrean erantzukizun aundia dugu: Auek garbi ikusi bear dute, gure sinesmena ez dela oztopo, eragozpen eta traba, lurreko zorionari begiratuz, lurrean lanari gogor ekiteko. Kristo piztu delako, guzia eraberritu bear dugu.

AROSTEGIKO

BLAS DE LEZO
ETXE ONTAN DAUZKAZU **SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK** ETA EDARI GUZTIETATIK
Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkiña: 41 20 65
DONOSTIA

zeruko ARGIA
EUSKALDUN ASTEROKOA

UGAL ETA ZABAL
EUSKALDUNON ASTEKARIA

Izen-deiturak ..........
Kalea .......... Zenbakia ..........
Herria .......... (Prob.) ..........

# Ipui antzera

# EGIAZKO ZORIONA

## ARROSARIO SANTUAREN ILLEAN

Eneko: jatorri oneko semea, emazte eta iru alabatxorekin bizi zen jauna. Aberats purrukatua izan eztare, irabazpide onaren jabea. Irabazpide orri buruz, arrokeria ere poliki-poliki ugaritzen zijoakion. Irabazpide onak, ez beti, baina bai askotan, ondoren txarrak sortzen badakizki. Diruak asko dezake. Eneko ere diruaren pozean, irabazpide onaren griña txarrak makrrturik, jozuen nolabaiteko lagunarte, jolastoki, jolas-etxe eta abarretara. Irabazpide guzia galdurik arkitzean, sendiko pake gozoa urratu, eta lapur gaizkille baten antzera bere emazte on eta umetxoengandik aldendu zen. Gizonaren burubidea!

Urte batzuk etxetik kanpora igaro ondoren, gau ikaragarri batean noruntz jo ez zekiela, zer egin? Mendian zear, zakur amorratuaren zaunkadaren oiartzunera, inguruetako zuaitz ostoaren zarraztadak ikaraturik, eldu zen nolabait ere baserri batera. Jotzen du atea, eta baserriko aitona euskaldun jatorrak barrendik erantzuten dio:

—Nor da?

**—Mendian galdurik dabillen bat.**

—Zer nai zenuke?

**—Gaur gaueko ostatua.**

—Zaude pixkabat —atea irekiaz—. Garai ontan, ekaitz onekin, guk ere naiko genuke, nunbait ere, gau ostatua arkitzea. Zatoz bada barrena, zarena zarela, Jaungoikoaren izenean, ongi etorria izen zaitez.

*Barrena sartu bezain laster, biotz oneko aitona zaarrak gertu zizkion berogarri guziak. Sutondoan, sukaldeko epelean, urdaiazpiko eta talo-esnearekin ongi ornituta gero, galdetu zion Enekok aitonari.*

—Aitona, zenbat urte dituzu?

**—Irurogeita amabost.**

—Irurogeita amabost? Oraindik gizon gordiña zaude.

**—Gordiña? Orain berrogei urte, bai.**

—Eta nola bizi zara?

**—Oso ongi, Jainkoari eskerrak. Berak ematen digulako osasuna, eguneroko ogia, eta sendiko pakea.**

—Senide asko aal zarete baserrian?

**—Iru illobatxorekin bizi naiz. Neure seme bakarra nue netxera ezkondua, eta orain lau urte senar-emazte biak il ziren naparreri gaixoarekin, iru illobatxo utzirik; amabi urtekoa zaarrena, zazpikoa bigarrena, eta urte-betekoa txikiena. Auek dira lurreko nere poz guziak. Bi gauza erakutsi dizkiet kontuz: otoitza eta lurreko egiazko zoriana.**

**—Egiako oriona!... zion Errekok bere artean. Auek beti nekepean, arto puxkabat, urdai zati bat besterik jaten ez dutela, eta alare atsegiñez eta pozez beterik bizi dira... eta ni, zori-gaiztoko egiñik, eta guzia nere erruz, nere burugogorkeriagatik; alako irabaz bide ederrak, ainbeste aberastasun eta ala ere guzia ondatu, sendiko batasuna birrindu, nere emazte eta umetxoen maitasuna galdu... baiña, zer tu, sendiku batasuna birrindu, nere emazte eta umetxoen maitasuna galdu... baiña, zer da au? Eta gogamen orrekin oera zen, aitona iru illobatxoekin sutondoan utzirik. Oera bezain azkar loak artu zuen. Ametsetan edo erdi-lotan nunbait zegoen, eta bere barrengo ixillaldian sumatzen zuen alako otoitz bero bat: "Ora pro nobis... ora pro nobis"... eta otoitz orrek bere biotza alaitzen zuen ezin geiagoz. Bere artean zion, emen zeruko aingerutxo bat dabil, izkuntza ori ez baida lurrekoa. Laister konturatu zen errosarioa errezatzen ari zirela: jeiki, eta, izil-ixilik, ate zaten zulotik begiratzean, non ikusten dtuen aitona, iru illobatxoekin, b e l a u n ikaturik, Ama Birjiñaren letaniak esaten, eta zion bere buruari: "Ai! Umetxo ori da etxe ontako zoriona egiten duen aingerutxoa... nik ere badut bost urteko aingerutxoa, nere Miren Itziartxo, aretxek zuzenduko nau, aretxek sendiko pakea biurtu, aretxek arkituko dit egizko zoriona".**

*Gau artan, egiñaalak egiñagatik ezin lo egin zuen Eseko gizarajoak. Urrengo egunez, goizean-goiz, baserriko aiton maitagarriari agur egiñez, biotzetiko eskerrak eman ondoren, bere etxera biurtzeko asmo sendoa artu zuen.*

*Bere etxera eldu zen. Ango emazte eta umetxoen arrera alaia! Ango poza eta atsegiña! Iñigok au guzia ikusi eta bere biotz-gogorkeria ezaguturik, negar eta negar, ezin itzegin zuen, negar-zotiñak ez baitzion uzten.*

*Zearo nekaturik, zerbait afaldu ondoren, oera zen. Baiña oera eta laster asten da bere buruari galdezka: zer da au? zer gertatzen da nigan? Bart arratsean aditzen nuen bezela "ora pro nobis... ora pro nobis"... aditzen dut. Jeiki zen eta ixilixilik, begiratu zun sukaldeko atearen giltz zulotik; eta, ara zer ikusten duen. Bere emaztea eta iru alabatxoak errosarioa errezatzen; guzien erdian aingerutxo bat, Miren Itziartxo, bere eskutxoak elkarturik letania esaten: "Ora pro nobis... ora pro nobis"...*

*Letaniaren ondoren, Miren Itziartxok esan zuen: "Beren sendietatik aldendurik arkitzen ziren guzien alde, Agur Maria"... Azken itz onek, ukitu zuen biotzaren erdi-erdian Eneko, eta bere begiak negar malkoz beterik, iñork sumatzeko beldurrez, ixil-ixilik oera zen.*

Urrengo gaunean, a f a l t ostean, emazteak galdetu zion:

—Ez aal zoan lagunengana?

**—Ez (eratzun zion Enekok) Nere lagunik onenak zuek zarete, zuek nere zoriona, zuekin eta Jainkoarekin bakarrik bizi nai dut. Orain, gauza bat nai nuke.**

—Zer nai duzu?, dio emazteak. Zuk agintzen duzun guzia egiteko gertu gaude.

**—Nere zorionik aundiena gauero-gauero errosarioa errezatxea litzateke.**

—Bai, Eneko; o r r e t a n atsegin emango dizugu. Errezatu zituzten bost amarreko, eta alabatxoa asi zenean letaniak esaten "ora pro nobis..." asi zitzaizkion erortzen negar malkoak, eta azkenez, emazte eta iru alabatxoei musu bana emanez oera zen.

*Geroztik ez zitzaion igaro egunik, errosarioa etxean errezatu gaberik, eta norbaitek nola bizi zen galdetzean, erantzuten zuen: "Ongi Jainkoari eskerrak. Berak ematen digulako osasuna, eguneroko ogia, eta sendiko pakea".*

*ANDONEGI-tar Z.*


**Etxe bizitza bat irabazi duzun albistea pozik jasoko al zenduke?**



**ZOZKETA 4 BIZITZA**

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

Etxe bizitza bat
irabazi duzun albistea
pozik jasoko al zenduke?

Pentsa zazu urrutizkiñez
dei bat artzen duzula...
Eta etxe bizitza bat suertatu
zaizula esaten dizutela!
Sos bat kosta eż zaizun
etxe bizitza. Gure etxean,

CAJA DE AHORROS
PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA ETXEAN,
zure diruak aurreratzeagatik
bakarrik irabaz dezakezun
etxe bizitza duzu.

Sartzen den 1.000 pezeta
bakoitzeko zenbaki
bat jasoko duzu, baita ere

leendik jarriak dauzkazun
5.000 pezetako bakoitzeko,
beste zenbaki bat ere.
Eta ain da erraza orrela
etxe bizitza bat eskuratzea!
Au da uste gabeko poza!
Orrelako albistea,
nork ez luke pozik jasoko?

PUBLIS 880/75

# ORIAKO ALEGI

## LANGAURREAN FESTA

Joan den igandean —Urriaren 19 an— Alegiko gazte sail bat han ginen Langaurrean, Intxurre Elkartekoek antolatutako egun pasa egiten. Langaurreko zelaia aditze haundikoa da alegitarron artean; han ginen guziok ezagutzen genuen, ia denok behin baino gehiagotan izanak ginen han pinua sartzen, oraindik Herriak, eskolume guziak urtean behin hara eramaten zituenean.

Babarrun jatera joan ginen Langaurrera, baina ez genuen hori bakarrik egin. Joan-da berehala, zelai guzia garbitzen aritu ginen, guzia egur eta zoztzez betea bait zegoen, adarrak han eta hemen, pinu tantaiak edozein modutara botata. Dozenerdi bat egur pila egin genuen horrela. Ekintza honek duen esan-nahiaz jabetuko zarete.

Langaurreko Mahaia hautsi da, hautsi dute, digute, erdian zuen haritza bota dute, leku baten hondamena jendearen gogoetan dagoena kenduaz hasten da. Ihartzen hasia omen, ihartua egon balitz ez zuten izango ez hainbeste enpeino, eta hala izan balitz ere, nolaz daiteke horrelako esan-nahia duen zuhaitz bat botatzen utzi? Nik horri AXOLAGABEKERIA esaten diot. Gaurregun erdipuskatutako mahaiaren erdian, gelditu zen hondotik atera diren, altzuma triste batzuk besterik ez dugu.

Lehen, urtean behin sikiera, herriko jendeak, autoridadeak aurretik zirela, bere baso-oihanak ikusten zituen eta egiten zen lanetaz arduratzen. Gaur ere, zergatik ez du egun bat izendatzen Herriak Langaurrean egun pasa egiteko? Jendeari dei egiteko zahagi-ardo bat eta soinua nahikoa dira. Igo dedila jendea Belostegi aldetik (bada han ere zer ikusirik), Gorotzene aldetik, Kontxa aldetik eta ikus ditzala bere baso-oihanak; Edota lotsatzeko moduko azioak egin ditugu azken parte honetan? Nolaz daduzkagu GURE baso-oihanak? Gordean edukitzetik ez du inork ezer irabazten, azpijanean dabilenak baino.

Nahi-ta-nahiezko zaigu gu gazteoi **gure** basoen berri jakitea, zein ditugun, nork eta nola darabilzkian, noren esku dauden, tab., eta, zergatik ez, aldian behin, hauzo-lanari ekin? Hortarako, gazteak mendira egin behar du eta ikasi, eta hortan ikasiko badu, ikusi.

**Langaurreko zelaia**
**len hintzen eredu**
**orain triste hago**
**haugu-ta isildu.**
**Berriro re hiregana**
**gaituk gaur hurbildu,**
**lagun bezala gatozek,**
**oraindik ez haiz galdu.**

MARTZELINO

# mutriku

## GURE ARRANZALEAK EGO-ALDERUNTZ

**Gure erriko itsasontzi b a t z u k, emengo atun aroari amaiera eman ondoren, ego-alderuntz atereak dira arrantza aundiak egiteko a s m o z. "UDABERRI", "I T X A ROPENA", eta "ITZIARKO AMA" itsasontziak ditugu ur aietara joanak. Gaur egunean, leengo konturik ez dago. Leen non nai arrapatzen zen, arraia ere zoro-zoro itsasertzeetaraiño urreratzen zen, gaur atunzaleak itxas zabal urrutietara joan bearra dute, arraia sortzen dan lekuetara, irabazpiderik izango badute. Negu beltzaren etorkizunari begiratuz, naita nai ez arrisku aunditan jokatu bear··· Bizitza latza gure arrantzale auena! Eta, ur aundietara joate onek, berbait atzemateko egokiera izaten badute ere, bestalde bere okerrak dakarzki, gizon bakoitzaren nolabaiteko gobernu, makalaldi edo gaxotasun, sendi-bizitzako epeltasuna eta abar···**

**Dena dela, itsasgiro on eta atun ugari ekartzea opa dizkiego.**

**Gure erritar arrantzaleak**
**badute koipe ta gatza,**
**Lagun artean umore one**
**bertso zar, kantu da dantza.**
**Baiñon alare izaten dute**
**arrisku aundi ta latza,**
**Itsas aserre amorratuak**
**beldurgarrizko ekaitza,**
**Ogi pixkabat irabazteko**
**zer bizimodu garrantza!**

ANDONEGI-tar Z.

# hernani

## MENDI-GAIN ELKARTEA

**Mendi-Gain** elkarteko gora-behera guztietaz arduratuko den, responsabilizatuko den talde berri bat izendatu da. Badirudi lanerako asmo onez datozela bainan asmo edo gogo hori zenbaterainokoa den denbora pixka bat igarotakoan (urtebete adibidez) jakingo dugu. Dakiguna hauxe da: lanari ekin egin behar zaiola eta elkarte hontan alkartuko diran gazteek, oraingoz benintzat, bazterrak mugitzeko asmoz ikusi ditugula. Gero gerokoak.

Ez dizuegu oraindik **Mendi-Gain**-ek urtean zehar egiteko aukeratu dituen eginkizunen berri emango, ez bait dira erabatekoak oraindik. Zehazki aztertu behar ditugu eta erabatekoak bihurtzen ditugunean emango dizuegu beraien berri.

Dena dela, bada gaur zer esana eta horra Azaro eta Abenduan **Mendi-Gain**-ek eraturik ospatuko diren eginkizunak: Azaroaren 9an argazki ibilaldia (marcha fotográfica) egingo da. Bertan parte hartu nahi dutenek **Mendi-Gain**-ek aukeratutako lekuetatik ibili beharko dute. Argazkiak bi temari, bi gairi buruz egin beharko dira: bat aurretik jarritakoa izango da, derrigorrean erabili beharra (garaiz abixatuko da) eta bestea gai librea izango da. Ea ba hernaniarrak, ez zaitezte beldur izan eta aurrera egin ezazue.

Azaroan (Ziur ez bada ere, gutxi gora behera 10etik 16rainoko tarte hortan izango da noski) bi edo hiru hizlari ospetsu ekarri nahi ditu **Mendi-Gain**-ek Hernanira gai interesgarri batzuetaz mintza ditezen. Ahal badugu behintzat emango dizuegu zehazki honen berri.

Eta azkenik Abenduan Mendizal leen Astea ospatu nahi da Hernanin, bainan hau aurreraxeago ikusiko dugu, bai bait dago denbora oraindik.

GAZTE BI

# pasai donibane

## ARRANTZA KINKA LARRIAN

**Arrantza sailak kinka larri bat bizi duela une hauetan, begi bistan dugu eta ukatzerik ez dago. Arrantzale giroari urbiltzera besterik ez duzu eta agudo sumatuko duzu sektore honen larritasuna. Bestalde, zenbait aldizkari eta egunkaritan ere, artikulu sakonak agertu dira arrantza sailari dagokion problemak ikutuaz. Baina, zein izan dira krisis larri honen iturburuak? Hona hemen, giro hortan jasotako zenbait arrazoi: Petrolioaren garestitzeak gas-oilaren igotzea ekarri du, eta kostearen garestitzea beraz. Kanpotik ekarritako arraia (esate baterako, Islandia eta Noruegatik ekarritako bakailua); gure arrantzaleak harrapatutakoentzat, oztopo eta eragozpen besterik ez dira saltzeko garaian. Lehen kalak, mundu guziko arrantzaleentzat libre baziren ere, egun nazio bakoitzak bere mugak jartzen hasiak dira, nazio pobreentzat kalte izugarriak sortaraziaz. Bestalde, itsasontzi gehiegi omen da, arrantza politika gaizki zuzendua omen dago eta abar.**

## ITSASONTZIAK LOTUAK

**Aestian aipatu ditugun arrazoiak benetakoak izan ala ez izan, errealidadea latza eta gogorra da. Hemen Pasaian, itsasontzi aunitz lotuak ikusten ditugu; ez bakailutakoak soilik, baita freskokuak ere. Bestalde, herrian genuen bakailu lantegi indartsuenak lur jo zuen eta garai bateko barku eder haiek, lotuak ikusten ditugu.**

## ONDORIOAK

**Kinka sakon honen ondorioak, ikusten hasiak gara dagoeneko. Izan ere, arrantza sektorearen inguruan, lantegi ugari bai dabil eta jakina, hauek lehenak izan dira krisis honen ondorioak nabaitu dutenak. Hemen ere errealidadea nahiko garratza eta mingotsa azaltzen zaigu. Gure herrian, Astilleros Luzuriagak, 95 langile "desenpleora" pasa ditu egoera hau konpondu arte. Pasaia bailara honetan ere ba da lur jo dueniak ere (Trintxerpeko Grafikas Elurra); beste batzuk berriz, "expediente de crisis" delakoa ere eskatua dute (Nerekan eta abar).**

## SOLUZIO-BIDERIK BAI?

**Bai nik eta baita zuk ere irakurle, segurki, jira-biraka dabilkigun galdera hauxe: "Soluzio-biderik ba ote da arazo sakon hau konpon dezaten?" Bai noski. Eta nahitanahiez, miloi franko behar du arrantza sailak, datorren urtean itsasora irtengo bada.**

## EZKONTZEKO BIDEAN

**Aurki bi adiskide zintzo erkonduko zaizkigu. Alde batetik, H. Lurdes Alberdi herriko neska xarmanta, L. Barbeito antxotar gaztearekin.**

**Bestalde, Arantza Saldise neskatila atsegina eta Pablo Katelin herriko gazte jatorra. Bi bikoteei gure zorionik beroena!**

IÑALURRETAK

# durango

## ALPERREKO HITZAK

Berriz ere zaramategia dakart nire lerroetara. Behin eta berriz aipatu dut hemen gure herriko arazo hau, baina dirudienez arazo honek ez gaitu larregi kezkatzen herritarrok.

Eskabide, deadar eta gatazkak hainbat izan ditugu herriko hirigintza pixka bat konpondu nahian, honetaz ez dakit ba larregi arduratu garen.

Zaramategiko keak kaleraino iristen dira, London ttipi bat eginaz gure herria.

Ziur nago Udaletxekoek harriduraz eta haserrez irakurriko dituztela Bilbo Haundiko satsadura arazoak erdal egunkarietan, baina arnasaldi bat ere hartuko dute, hemen horrelakorik ez dugula esanaz.

.Egia da, ez gara heldu Bilboko mailetara, baina zer jazoko da lantegien ugaritzeak horrelako bat badakarzgu? Agintarien egiteei ala esanei jarraiko diote? Horrelako arazoren bat sortzen bada, zer eskubide du Udalak berak betetzen ez duena, besteei bete erazteko?

Diodana alperreko hitzetan galduko da, herri arazoak geureak bezala ikusten ez gaudelako ohituta eta. Hirigintza eta beste, Udaletxekoen eskuetan egon denez eta herritarrok Udaletxetan parterik izan ez dugunez, ohitura galdu dugu, ez digute irakats herri politika bat egiten eta egiten utzi ere ez. Garaia da horretarako herritarrok prestatzen hastea.

## KARROZAK

Karrozak kaleetatik zehar irtetzeko ziren bezperan, bati sua emon zioten; halan da ere karroza urten zen eta bigarren saria jaso.

Horrelako "alizienteekin" datorren urtean karroza guztiak sutan ikusi baietz.

## GUDAROSTE URDINA

Ez, hauk ez dira Hitlerri Rusiaren aurka laguntzen joan ziren haietakoak. Beno! izan, izan··· ez dakit, zaina oraingo gerla ez dela izan haren gisakoa bai, eta Durangori dagokionez (ez gaituk bakarrak) gudu bat galdu dute.

Fatimako Ama Birjina harturik hor dabiltza zenbait "gudari u r d i n" —arren, ez nahastu kolore urdinok, hau marianoa da, noski— herri xehearen fede ahula indartzen eta bere lotsa astintzen, hitz jario sutsu baten berora jendea kaleratuz Ama Birjina aurrean dutelarik. Eta hori joan zaie, denporak aldatu dira.

Hori izan zen eskualdeko apaizen erantzuna, "horrelako montajeetarako garaia joan dela eta gaurko egoera ez dagoela horrelako gauzetarako".

Erantzuna ez ei zen izan gustokoa eta berehalaxe izan zuten arrapostua, UGT-koak zirela esanez. Eta nire herriko apaizak UGT-koak badira ni zer naiz?

Ohi den bezala, pozik bizi izan naiz orain arte herria sailkatuta nuelakotan; eskuinean apaizak (noski, eskuinerago gudari urdinok), baina hoientzat apaizak hain ezkerrean badaude, non egongo ete naiz ni?

Uste dut lekua galdu dudala, hau buruko mina!

KATAZURI






yany

SUKALDEKO MUEBLEAK
EDERRAK BEZAIN EGOKIAK

FELIX ETXABE, S. L.
Urrutizkiña: 891754
ZALDIBIA (Gulp.)

# "TONTORRA - ALTZOLA SARIA"

## Nikolas Alzolarekin solasean

Durangoko liburu eta disko azokan gara. Gerediaga Elkarteari eta Durangoko herriari eta azokari loturik da Nikolas Alzola Gerediaga, anaia Berriotxoa.

Besteak beste «Tontorra-Alzola Saria» sortu du aurten bere kabuz eta lanez.

Gauza interesgarri eta zentzuzko asko esan digu anaia Berriotxoak. Baina inori mingarri gerta dakiokeen ezer argitaratzerik ez du nahi. «Hori zuri esaten dizut, baina ez argitara mesedez», esan digu behin eta berriz gure solasaldian.

Ea, bada, gure Nikolas onaren agindua betetzen dugun!



Okendon, Ullibarriri buruzko hitzaldian

—Gerediaga duzu bigarren deitura. Gerediaga jatorriaz bai ahal duzu zerikusirik?

**—Hala suertatu da, baina ez dut zerikusirik. Bizkaia Gernikan bildu ohi zen. Durango ez zen izan Bizkaia garai hartan. Gero batu zen Bizkaiarekin. Durangok eta Durangoko eskualdeak beste arbola bat zuen. Hor biltzen ziren hemengo bizilagunak. Baserria besterik ez zen hauzo hartan da GEREDIAGA-ETXEBERRIA. Etxe horretakoak ziren nere amaren aurrekoak, baina horrek ez du GEREDIAGA-rekin zerikusirik. Hori bai,** Gerediaga Elkartekoa nauzu. **GEREDIAGA Gernikakoaren antzera etxe bat eta arbola bat duzu.**

—Gerediaga Elkartekoa eta Azokan eman ohi diren sarietarako epai-mahaiko zaitugu.

**—Epai-mahaikoa, zoritxarrez. Honelako erantzukizunik ez dut nahi izaten neure gain. Beste inongo sariketan ez naiz epaimahaiko izaten. Denei ezezkoa ematen diet. Durangokoan bakarrik iharduten naiz egiteko astun horretan. Jose Luis Lizundiari ezezkoa ematea zail da, hain irripartsu eta gozo etortzen zaizu!**

—«Tontorra-Altzola Saria» sortu duzu, jakin dugunez.

**—Bi asmo izan ditut gogoan sari hau sortzerakoan. Euskal bizitza, euskal kultura, euskal gizabidea, euskara bera aurrera daramatenei «zorion» eta «esker ona» agertzeko sortzen da Gerediagakoen «Tontorra-Altzola Saria», batetik. Bestalde, guk baino diru gehiago dutenentzat eredu gerta dadin.**

—Eskerra eta deia, beraz.

**—Bai, gaurko bide estuetan ito eta hil ez gaitezen. Lan asko egin behar da eta diru asko behar da horretarako. Gerediaga Sari guztiak bezalaxe «Tontorra -Altzola Saria» ere apala da. Oso apala. Baina bihotz zabal eta asmo zintzoz sortua da. Diruz beteta da gaur Euskal Herria. Nora doa hainbeste diru? Zenbat euskal kulturari laguntzeko? Dirudunek eman biezaie erantzuna. Nere eskaintza apal honek galdera horixe sortarazi nahi luke eman dezaketenen artean. Euskal kulturarentzat diru gutxi eman ohi dute dirudunek, diruetxeek eta Aurrezki Kutxek.**

—Sari hau irabazi nahi duenak zer baldintza bete behar ditu?

**—Muga esturik ez dut ipini nahi izan. Zabal jokatu nahi nuke. Humanismo jator batean eginik den edozein lan sarizta daiteke. Sustrai zaharretatik bide berrietara daraman edozein lan. Katemaila berriak sortu, baina katea bera eten eta apurtu gabe. Aurrera egin behar dugu, noski, ezpairik gabe. Mundua aurrera doa, gu ezin gintezke etzean gera. Aurrera jo behar dugu, baina geure nortasuna ukatu eta galdu gabe. Mundu zuzen eta berriaz elkarturik, baina geure buruak eta balioak inori ezergatik saldu gabe. Muga eta baldintza hoiek ditu sari honek.**

—Sari apala dela esan diguzu; zer sari da?

**—Hara, nik pintatzeko ikaragarrizko zaletasuna izan dut. Zorionez ala zoritxarrez ez dut horretarako era haundirik izan. Baina lantxo batzuk baditut eginik. Diru asko irabazi eta sari haundiak lortu eta munduko museorik famatuenetan beren lanak ezagutuak izan daitezela da askoren ametsa. Pintatzaile honen nahia beste bat da: Euskal Herriaren kulturari lagundu, berak ahal duen neurri apalean. Euskal kulturgintzan ari direnentzat poz eta sari bilaka daitezela neure ertilanak nahiko nuke. Neure kuadro batzuk emango ditut, beraz, «Tontorra-Altzola Sari» honetan. Nik ez dut dirua irabazteko pintatzen, euskal kulturan dihardutenei laguntzeko baizik.**

—Behar bada ez da galdera egokia, baina atrebentziaz baimena eskatutakoan edozer galdetzeko eskubidea dugu euskaldunok. Zeure arteaz zer iritzi duzu?

**—Neure arteaz? Oraindik ez dut pentsamendu garbi bat. Baina gaurko Euskal Herriak dituen arazoak nahiko nituzke agertu. Hori litzateke nere gogoa. Gaurregun, ordea, paisajeak bakarrik egiten ditut. Sari moduan eskaintzen ditudan kuadroak nere herriko paisaje batzuk dira. Euskal kulturan lanean ari direnen aurpegiak egin beharko nituzkeela, esan zidan Arestik behinola. Nik ez nuen aurpegirik egiten ikasi. «Bellas Artes» etxea ondoan dut eta saiatu behar dut aurpegiak egiten ikasten. Izan ere gazte gaztetandik artea ikasteko asmotan banintzen ere beste bide bat hartu behar izan nuen nik. Irakaskuntzan sartu behar izan nuen. 25 urte igaro ditut pintatu gabe. Ez, dut damurik, euskal kulturan sartzeko aukera izan dut honela. Bestela beste bide batzutan ibiliko nintzen gaur. Orain, berriz, kultura eta pintura munduak elkarri lotzeko era dut. Gaztetako nere zaletasun hura berpiztu da, baina euskal kulturari eskaintzeko.**

—Atrebentziaz egin dizudan galderari iheska zabiltzala dirudi.

**—Neure arteaz zer pentsatzen dudan nahi zenuke jakin. Ezin dut ezer esan oraindik. Euskaldunen pintura oso suabea zen. Arteta eta eskola horretakoak ziren. Indar haundiko pintura egiten dut eta egin nahi dut. Iturrino izan zen margotan indar haundia sartzen zuena. Baina besteak oso romantikoak ziren. Madrilen ikasten zutenek akademia haren bidetik ihardun zuten. Hemengoak, ordea, Parisa joaten ziren eta inpresionismoaz kutsatu ziren. Iturrinok bakarrik ekarri zuen pintatzeko era gogor eta indarreko hori. Neri ere bide eta era hori zait atsegin. Zubiaurrekin harreman haundia izan nuen gaztetan. Suabeago egiteko esaten zidan, baina nik beti gogorrerako joera izan dut. Su haundia eman nahi izaten diot neure pinturari.**

—Zure dohai horren berri inork gutxik zekien Euskal Herrian, idazle bezala ezagutu zaitugu euskaldunok. Zer diozu zeure belaunaldiaz?

**—«Kontinuitateko generazioa» deitu dio Ibon Sarasolak gure belaunaldiari. «Katakunbetako belaunaldia» deitzen diot nik. Guk isilean eta izkutuan ihardun behar izan dugu.**

—Zu izen-ordekoez baliatu zara.

**—Nork bere jatorrizko deituraz lanak agertzeko ohiturarik ez da izan Lasalletarren artean. Talde-izena erabili izan da. Batek egin ala besteak egin «Bruño» izenaz argitaratzen ziren Espainian liburuak. Berdin Frantzian ere. Kanadakoak hasi ziren bakoitza bere izen-deituraz ezarriaz lanak argitaratzen. Horretaz gainera, badut nik neure izenaz lanak ez argitaratzeko arrazoirik. Nere lanek ez dute baliorik. Euskaraz idazten ere ez naiz egokia. Oso motela naiz hizkuntzetarako. Lotsa piska bat ematen dit lan kaskar hoiek neure izen-deituraz agertzeak. Ez dut segurantzirik. Baina izen-ordeen gaitza edo ohitura haundia da euskaldunon artean. Zergatik erabiltzen dute euskaldunek horrenbeste izenordeko? galdetu nion behin batean Laffiteri. «Segurantza haundirik ez duen herri bat garelako» erantzun zidan. Neri behintzat honelako zerbait gertatzen zait.**

———

Nikolas Alzolak ez dio inori minik eman nahi izan. Iritzi interesgarri asko kolkoan gorde beharko ditugu, beraz. Anaia Berriotxoaren jokabidea euskaldunontzat zuzpergarri eta eredu gerta bedi. Euskal kulturak dirubideak behar ditu. Bide hoiek sor eta ugal ditzakeenik bada gure artean.

Gogoan gera bitez Berriotxoaren esker ona eta deia.

**ERRIALDE**

